

KARKARA



IÑAKI ARRILLAGA

**ARRAUNA
ARTISTAREN BIHOTZEAN**

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO!

“DUDIK ETA GABE, ZARAGUETA”

Matrikula epea: Urtarrilaren 27tik otsailaren 7 arte

Bilera informatiboa eskolan (elebiduna): Urtarrilaren 23an (18:00etan)

Eskola zabalik: Urtarrilaren 25ean (10:30etatik 12:30etara)

Tel. 943 89 92 43 **E-posta:** 012137aa@hezkuntza.net





KARKARA 413

2020-URTARRILAK 31

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | |
|--|--|
| <p>5 Iritzia Aiora Larrañaga Solaberrieta
<i>Tokian tokikoa balioan jartzea
erronka</i></p> <p>6 Hitz tantak Amaia Urbieta Arruti
<i>Ibai Murgiondo</i></p> <p>8 Izpiak eta hizkiak Asier Sanchez
<i>Azores, Sao Miguel Mosteiros</i></p> <p>10 Gutunak</p> <p>12 Herrian galdezka</p> <p>14 Oroimenaren kutxa Iñaki Iturain
<i>Patxi Danbolinen ubera</i></p> <p>18 Mahai bueltan
<i>Angelica Acosta: Mexikon bospasei
urte dituzunetik, nonahi pikantea
dastatzen hasten zara</i></p> <p>20 Elkarrizketa Intza Unanue
Arruabarrena
<i>Iñaki Arrillaga: Oteizaren lan
batzuekin erakusketa finkoa eduki
behar genuke herrian</i></p> <p>27 Bazkide kluba</p> | <p>29 Moila bazterretik Eli Huegun
<i>Aurrera begira</i></p> <p>30 Erreportajea Aiora Larrañaga
Solaberrieta
<i>Bizitza duina lortzeko borrokan</i></p> <p>34 Akuilua hartuta Antonio Campos
<i>Asko gara jaso behar dugunak, eta
gutxi, sortu behar dutenak</i></p> <p>35 Nire honetan Jon Garate
<i>Gimnasioa. Diskrezioren tenplua</i></p> <p>37 Ikasleak idazle Orioko Herri
Ikastola</p> <p>38 Osasuna Miren Gozategi
<i>Zoru pelbikoaren tabua gaindituz</i></p> <p>39 Euskara Ainhoa Zumeta
<i>Euskaldun identitatea definitzen</i></p> <p>40 Albiste laburrak</p> <p>42 Plazan bazan</p> <p>44 Agenda</p> <p>45 Zerbitzuak</p> <p>46 Hasi bertsotan Txomin Eizagirre</p> |
|--|--|

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.

Soreasu z/g. 20730

AZPEITIA

943-86 15 27

karkara@karkara.eus

www.karkara.eus

Lehendakaria

Rikardo Uzkudun

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta

Erredaktore taldea

Onintza Aiestaran
Onintza Lete Arrieta
Elizabete Manterola
Intza Unanue Arruabarrena
Rikardo Uzkudun
Dorleta Agiriano Lai

Amaia Urbieta Arruti

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Publizitatea

Leire Martija

Ale honetako kolaboratzaileak

Eli Huegun
Antonio Campos
Jon Garate

Miren Gozategi

Ainhoa Zumeta

Banatzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)
Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-346/90

ISSN: 1132-1105

Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA



AIAKO
udala



Speed Queen.



SPEED QUEEN GARBITEGI BERRIA

Speed Queen garbitegiak primerako garbiketa- eta lehorketa-zerbitzua bermatzen dizu giro moderno eta eroso batean.



SPEED QUEEN ORIO

**Ibai Ondo 1, behe-oina
20810, ORIO**



ORDUTEGIA

**08:00 - 22:00.
Urtean 365 egun**



Speed Queen®

Tokian tokikoa balioan jartzea erronka



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Urtarrilaren 15ean hil zen Patxi Oliden *Danbolin*, eta gertaera horrek zer pentsatua eman dit egun hauetan guztietan. Nik neuk ez nuen izan Patxi pertsonalki ezagutzeko aukerarik, baina herri kazetaritzan lan egin dudan urteotan beti izan dut bere lanaren berri. Hasiera batean, atentzioa eman zidan Hego Euskal Herrian eta Espainian surf oholak egiten aitzindaria izateak. Harrigarria iruditzen zitzaidan inoiz surfik egin gabe, itsasoaz eta mekanikaz zuen ezagutzarekin surf oholak egitera iristea. Talentu handiko gizona zen, zalantzarik gabe!

Dena dela, bere heriotzaren egunean, Olideni buruzko albistea osatzeko erreakzio bila hasi nintzen, eta txundituta utzi ninduen izan zen gizon horrek herriko musikaren alde musutruk egin zuen lana. Patxik musika maite izan zuen bere bizitzako azken unera arte, eta herritarren artean musika zabaltzeko sekulako lana egin zuen, gainera. Hil zen arte musika sortzea izan zen bere zaletasuna, eta partiturak ordenagailuz ere idazten zituen 80 urterekin. Bikaina benetan! Musika sortzeak burua fresko mantentzen ziola esaten omen zuen.

Hainbat herritarrek Patxi Danbolinen inguruan esandako hitzak irakurri nituenean ohartu nintzen badirela isilpean beren borondatez herriaren alde lan handia egiten duten pertsonak, gehienetan lurralde edo Euskal Herri mailan ezagunak ez izan arren. Komunitateari eta herri kazetaritza egiten dugunoi dagokigu lagun horien lana balioan jartzea, ez baitago pertsonaia txikirik edo handirik, kazetaritza txikirik edo handirik ez dagoen bezala. Hori da gure erronka, herritarrei gure herrian dauden artista, musikari, kirolari, aktibista edota gizarte arloko eragileen lana ezagutaraztea, horiek aberasten baitute gure herria. Hurbileko informazioa urrea da, horrek bereizten baikaitu globalizatutako mundu honetan. Askotan, nazio edo nazioarte mailako komunikabideetan oihartzuna duten pertsonaiekin harrিতuta geratzen gara, eta horiek hartzen ditugu erreferentetzat, baina ez dago urrutira joan beharrik lagun eta istorio zirraragarriak ezagutzeko. Nire amona Petrak zioen moduan, “urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau”. ■

**HURBILEKO
INFORMAZIOA URREA
DA, HORREK BEREIZTEN
BAIKAITU
GLOBALIZATUTAKO
MUNDU HONETAN**



Ibai Murgiondo

TESTUA ETA ARGAZKIA: AMAIA URBIETA ARRUTI

Turismoaren eta Hotelen Kudeaketa gradua ikasi zuen lau urtez Bartzelonan Ibai Murgiondok (Orio, 1995). Tenerifen lanean ibili ostean Oriora itzuli da, eta Donostiako Maria Cristina hotel famatuko harrerazaina da gaur egun.

Zein ibilbide egin duzu Maria Cristina hotelera heldu arte?

Batxilergoan ez nuen oso garbi zer ikasi, baina egia da txikitatik fijazioa izan dudala hotelekin. Gurasoekin oporretan hoteletara joaten nintzen, eta beti galdetzen nien ea nola iristen zen jendea hor lan egitera. Asko gustatzen zitzaidan, hotelak iruditzen zitzaizkidan herri txikien modukoak, leku txiki batean sartuta. Batxilergoko tutorearekin graduak begiratzen ari nintzenean ikusi nuen Bartzelonako turismoaren inguruko hori.

Tenerifen ibili naiz lanean, eta uztailean iritsi nintzen berriro Oriora. Nire curriculumua duela urtebetetik zuten Maria Cristinan eta, hona itzultzean, handik deitu zidaten. Hiru elkarrizketa egin, eta astebeteko epean eman zidaten baiezkua. Abuztuaren 19tik nabil han lanean.

Nolako da egunerokoa Maria Cristinako harreran?

Hotelean erregistratzen ditut bezeroak, paperak erakutsi, zein gela eta zer zerbitzu dituzten esan... Marriot kateko bezeroak badira, abantaila batzuk dituzte besteek ez dituztenak. Ia beti gela erakustera joaten naiz beraiekin. Azkenean, zure etxera datoz eta zuk etxeak nola funtzionatzen duen erakutsi behar diezu. Horrez gain, hotelean ostatu hartuko ez duen jende asko sartzen da hotela nolako den ikustera, izen handia baitu. Dagoen lekuak atentzio handia ematen du, eta hotelaren historiaz ere askok galdetzen dute.

Zein da bere historia?

Maria Cristina erreginak ireki zuen, Alfonso XII. aren emazteak. Hark eraiki zuen 1912an, aristokraziako jendeak Donostian non lo egin izan zezan.

Jende ospetsuari harrera egitea tokatu al zaizu?

Bai, Zinemaldian urtero etortzen dira ospetsuak. Hain zuzen, abuztuaren hasi nintzen lanean eta, irailean Zinemaldia zenez, *celebrity*-ekin egon naiz, espainiarrak eta nazioartekoak.

Horietakoren batekin anekdota berezirik izan al duzu?

Baten bat bai. Zinemaldian aktore ezagun bat etorri zitzaidan harrerara, gertuko arropa dendaren baten inguruan galdezka. Harrituta geratu nintzen eta galdetu nion ea zein motatako arropa behar zuen, eta hark erantzun, edozein dendak balio ziola. Kontua zen, Zinemaldian janzteko marka ezagun bateko soinekoa eman ziotela, eta soinean zeramala ohartu zela alarma kendu gabe zuela soinekoak. Azkenean, lankide batek lagundu zion eta lortu zuten soinekotik alarma kentzea.

Presio handia al duzu lanean?

Ez da hainbesterakoa; beste hotel baten modukoa da. Egia da lanaren parte dela uneoro atsegina izatea. Antzerki apur bat egin behar duzu; egun txarra baduzu, haserre edo triste bazaude, bezeroek ezin dute nabaritu. Baina gustura nago lanean.

Zerk erakartzen zaitu gehien zure lanetik?

Hotelak gustatzen zaizkit: esperientzia bat sortzen du bezero bakoitzarentzat, eraikinean sartzen denetik ateratzen denera arte. Esperientzia hori bezeroei sortzea ez da gelako giltzak ematea bakarrik. Arreta pertsonalizatua ematen da. Esaterako, bere urtebetetzea baldin bada eta zerbait berezia egiten badiozu, bere esperientzia oso desberdina izango da. ■■■



Azores, Sao Miguel, Mosteiros

ARGAZKIA ETA TESTUA: ASIER SANCHEZ

Argazkia lagun bati bisitan joan nintzaionean atera nuen. Familiako inor gabe bidaiatzen nuen lehen aldia zen, eta astebete pasa nuen uhartean inongo planik egin gabe, surfa eginez eta uhartea ezagutuz. Milaka argazki atera nituen bidaiari, bertako inguruak ikusgarriak baitira. Dena dela, txoko guztien artean argazkian ageri denak eman zidan atentzioa. Azores uharteetan eguraldia oso azkar aldatzen da, eta argazkia atera nuen unean egoera jakinak bat etorri ziren: kolore ederra eta paisaia ikusgarria. Horrela deskribatuko nuke momentua: bi surflari, inurrien tamainakoak, natura ikusgarri eta bortitzaren aurrean. ■■■





Feministok haserre gaude

KALTZERAK TALDE FEMINISTA

2019a zapore garratzarekin bukatu dugula adieraztera gatoz. Xaltxerak talde feministatik jakinarazi nahi dugu gustura gaudela, behingoz, Orion, emakumeon ahotsak jasotzen dituen diagnosi bat osatu delako, eta instituzioek feminismoari tokia eman nahi diotelako. Behar-beharrezkoa deritzogu feminismoa agenda politikoan txertatzea, eta bide baten hasieran gaude. Orain arte ezkutuan egon diren ohitura eta jarrera matxistak ikusarazten ari gara, eta igarri dugu herria azaleratzen ari diren indarkeria kasu horietatik ikasten eta feminismoan kontzientzia hartzen hasia dela. Baina, hala ere, haserre gaude.

Azaroaren 25ean, Emakumeon Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunean, kalera atera ginen *Ez zaituztegu behar aske izateko* lelopean. Beste behin ere irmoki gaitzetsi genituen sistema patriarkalak dituen mekanismoak: sistema poliziala, diskurtso hutsalak, espetxeak eta xenofobia eta morboa, besteak beste. Gure sareetan duzue A25erako Euskal Herriko Bilgune Feministak landu zuen irakurketa.

Hori dena gertatzen ari zen bitartean, paraleloki, Orion, matxismoak bere bidea egiten

jarraitu du, eta hainbat erasoren berri izan dugu. Adibidez, San Nikolas festetan. Festen balorazioa "positiboa" izan den arren, eraso matxista bat gertatu zela ziur dakigu, eta ez dugu baztertzeko gehiago izan ez zirenik. Festetakoez gain, beste eraso batzuen berri ere badugu, eta talde feminista bezala erantzukizuna sentitzen dugu. Beraz, argi eta ozen esatera gatoz feministok haserre gaudela, eta hortzak erakutsiko ditugula. Ez gaituzte isilduko!

Emakumeok emakume izate hutsagatik pairatzen dugun indarkeriaz nazkatuta gaude! Behin eta berriz errepikatuko dugu emakume bat erasotzen dutenean emakume guztiok erasotzen gaituztela. Kaleak eta gauak gureak direla aldarrikatzen jarraituko dugu. Espazio publikoa geureganatzeko ekintzak egiten jarraituko dugu matxismoarekin amaitu arte! Indartsu gaude eta eraso matxistei autodefentsa feministaz erantzungo diegu.

Testu hau baliatu nahi dugu esateko Xaltxerak bizirik eta indartsu gaudela. Eta, esan beharrik ez dago, Orioko emakumeok gure taldean militatzeko atek zabalik dituzuela, noski! Kide berriak beti hartzen ditugu gustura, eta besoak zabalik hartuko zaitugu. Gurekin harremanetan jartzeko idatzi **oriofeminista@gmail.com** korreora, edo bestela, gure sare sozialetara.

Pasa den azaroaren 25eko irakurketaren hitz bereberekin itxiko dugu testu hau: Aske izateko dugun armarik zorrotzena emakumeon* artean elkar babesteko sareak dira! Ekin autodefentsa feministari!!

Goiko Kalea ahaztuta

ORIOITAR BAT

Goiko Kaleko bizilagun bat naiz, eta gutun hau idatzi dut nire kexa azaltzeko. Goiko Kalea ez da Pilliku plaza bakarrik, hortik gora ere oriotarrak bizi gara. Lehen txistulariak, Santa Agedako eskea, hau da, festa giroa Olluaneko etxetik hasten zen, eta bizipoza ematen zion Goiko Kaleari. Orain, berriz, ez da horrelakorik geratzen. Badakigu herria hankaz gora dagoela, baina badira urte batzuk Goiko Kalea eta bertako bizilagunok ahaztuak gaudela. Orio denok gara, herritar guztiok osatzen dugu herria, beheko kalekoek eta Goiko Kalekoek.

Agur bat denoi!

Zuzenketa-Inaxio Iruretagoienaren argazkiak

KARKARA

412. Karkarako Oroimenaren Kutxa atalean, 14. orrialdean, 'Agustin Aldalur Aiako txistulari eta organo-jolea' erreportajea oner bat jarri genuen, eta ohar hau okerra zuzentzeri dator: 15. orrialdeko bi argazkiak Inaxio Iruretagoienak eginak

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARA**ra bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

dira eta, beraz, harenak dira. Barka diezagula okerra.

Udalak aho batez onartutako mozioa

ORIOKO HERRITARREN FOROKO KIDEAK

Hiru urteko haur bati gurasoak kendu dizkiote, eta gurasoei hiru urteko haurra kendu diete. Legea betetzeko izan omen da. Horren aurrean, haurraren aitaren herrian kultur eta kirol elkarte askok erakutsi dute haurrarentzako eta gurasoentzako elkartasuna, eta haien eskubidea aldarrikatu dute, legearen arabera elkarrengandik ahalik eta gertuen egon daitezten.

Hori dena Orion gertatu da, gure herrian. Eta orain dela aste batzuk Udala ere horren alde agertu da. Udalak adostasuna erakutsi du eta aho batez onartu du Xua Gurasoekin Etxera herri ekimenak aurkeztutako mozioa.

Mozioak neurriak eskatzen ditu, legedia kontuan hartuz, ahal bezainbeste bermatu dadin haurraren eta gurasoen arteko harremana, zaintza eta gertutasuna, eta familiaren batasuna haien ingurune sozialean izan dadin, haurraren interes gorenara babesteko.

Gu, herrian elkarbizitza sustatzeko eta lantzeko Herritarren Foroa osatzen dugun oriotarrok, poztu egin gaitu Udalak hartutako erabakiak, lau alderdi politiko desberdinetako zinegotzietan

adostutakoak. Herritar guztiak ordezkatzeko gaituzten zinegotzietan mozioa aho batez onartzea daukan garrantzia azpimarratu nahi dugu. Elkarbizitzak, horrela, aurrerapauso sendo bat ematen du; eta guk ospatu egin nahi dugu eta gure ordezkariak zoriondu.

Beste maila politiko bateko agintariek herritarrok eskatutakoa ahalik eta epe laburrean bete dezaten eskatzen dugu guk ere. ■■■

ZORION AGURRAK



Jose Antonio Izeta eta Mari Cruz Sarasola abenduaren 20an urrezko ezteiak bete zituzten eta 21ean ospatu zituzten beren familiaz inguratuta. Andatzako elizan eman zien hasiera eta ondoren bazkari ederra egin zuten atxega jauregian emozioz betetako momentuekin. Egun polita pasa zuten eta ea hemendik 10 urtera ospatzeko moduan egoten diren. Zorionak bikote!!

JAIOBERRIAK

- **Bruno Macieljewski Torres.** Orion, abenduaren 12an.
- **Julen Andre Guillen Arroyo.** Orion, abenduaren 14an.
- **Markel Beldarrain Lertxundi.** Orion, abenduaren 30ean.
- **George Kevin Gheorghe.** Orion, urtarrilaren 6an.
- **Janet Etxeberria Salegi.** Orion, urtarrilaren 6an.

HILDAKOAK

- **Milagros Odriozola Lertxundi.** Aian, abenduaren 19an. 69 urte.
- **Maria Dolores Iribar Arruti.** Aian, abenduaren 21ean. 84 urte.
- **Matilde Salsamendi Gz. de Txabarri.** Orion, abenduaren 19an. 87 urte.
- **Edurne Marin Zeberio.** Orion, abenduaren 21ean. 58 urte.
- **Joxe Iparragirre Urkizu.** Orion, urtarrilaren 4an. 95 urte.
- **Jose Antonio Beraetxe Aranburu.** Orion, urtarrilaren 8an. 87 urte.
- **Begoña Barjakoba Seguro.** Orion, urtarrilaren 11n. 86 urte.
- **Patxi Oleden Gz. de Txabarri.** Orion, urtarrilaren 15ean. 96 urte.
- **Rexu Murgiondo Aierza.** Orion, urtarrilaren 21ean. 88 urte.
- **Bixente Larrañaga Etxeberria.** Orion, urtarrilaren 21ean. 75 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARA**ra bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

PUBLIZITATEA



Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

22, 26, 28, 49, 55 eta 60 eserleku dituzten literadun autobusak ditugu.

Ubegun industria gunea, 4 AIA-ORIO
 943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)
 Fax-a: 943-89 05 62
 alustiza@autocaresalustiza.com



Aristerrazu Jatetxea

Andatza auzoa · AIA
 943-83 45 21
 www.aristerrazu-jatetxea.com

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
 www.cristaleriaanorgatxiki.com
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

arkaitz taberna
 ●●● orio ●

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin giro ezin hobea

ableslari kalea 6 - 943-83 16 57

edaritegia **Antilla** *jatetxea*

Abeslari kalea, 2
 ORIO
 943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitartekoak

Pelotari, 5 · ORIO
 943-83 00 34
 autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



azkue
 auto

Olaskoegia z/g
 AIA-ORIO
 943-13 04 38

fontana iturgintza
 iturgintza · gasa · berogailuak

Zerbitzu teknikoa 24 ordu

Lekuz aldatu gara!

Arrantza kalea, 3 · ORIO
 fontana-jul@hotmail.es
 www.fontaneria-fontana.com
 943-53 98 88 · 661 26 28 28

BODEGAS Gailur

© 1307 BANCOS de EBRO
 Tel./Fax: 943 20 91 58
 www.bodegagailur.com
 Arabar Errioxa

ZUDUGARAI

Gelario Txakolina
 txakolizudugarai@euskalnet.net · www.txakolizudugarai.com

Carmen eta Txomin
 ARRAINDEGIAK



TXOMIN ARRAINDEGIA
 Eusko Gudarien kalea, 44
 943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
 Arizaga kalea
 943-83 05 37

Noka hitz egiteko ohiturarik ba al duzu?



NIEVES ARRUTI

Nik noka hitz egiteko ohitura handia dut; beti noka jarduten naiz, baita 90 urteko emakumeekin ere. Senarrak askotan egiten dit errieta, adineko emakumeei errespeturik ez diedala esanez, baina ez da errespetu kontua. Txikitatik dut toka eta noka hitz egiteko ohitura, etxetik datorkigu. Gutxi ezagutzen ditudanei zuka egiten diet, baina gainontzekoei beti toka edo noka. Esaten dute orain noka lehen baino gutxiago erabiltzen dela, baina niri pena ematen didana da euskaraz primeran hitz egiten duten herritarrak erdaraz hitz egiten entzutea.



MARIAN LAZKANO

Guk senide artean hitanoa erabiltzen dugu beti, txiki-txikitatik. Gaur egun erabilerak behera egin duela uste dut, oso-oso gutxi erabiltzen dugu. Batzuetan, gainera, erabiltzen dutenek ez dute ondo erabiltzen. Ohikoa da neskek noka erabili beharrean, mutilei ari balira bezala hitz egitea, tokaz. Ikusten dut badela hutsune bat hor, eta gehiago erabili beharko genukeela hika orokorrean, baina baita noka ere. Oso ondo iruditzen zait noka sustatzeko dinamikak martxan jartzea, garrantzitsua baita emakumeen artean zein gazteen artean erabilera bultzatzea.



MARIJO GABILONDO

Egia esan, nik ez dut hika hitz egiteko ohiturarik, eta normalean ez dut erabiltzen. Aitarekin baino ez dut egiten; bestela, zuka jarduten dut beti. Nire ahizpek, berriz, noka egiten dute beren artean. Agian, jaitsi egin da hikaren erabilera; esaterako, seme-alabei eta, oro har, haurrei, zuka egiten diegu. Ondo dago nokaren zein tokaren erabilera bultzatzeko egitasmoak antolatzea, baina iruditzen zait zaila dela dagoeneko barneratutako ohiturak aldatzea, eta zaila dela egun hika hitz egiten ez duenak, aurrerantzean egitea. Baina ondo dago saiatzea. ■■■

Patxi Danbolinen ubera



IÑAKI ITURAIN

ituirain@gmail.com

Patxi Danbolin hil zen urtarrilaren 15ean, 96 urterekin, 97 bete bezperan. Bizitza luzea egin du, Orion beti, eta arrastoa utzi du herrian. Horregatik Karkarak haren gainean idazteko eskatu dit, Patxi Oliden zendu berriaren bizitzak herrian utzitako uberaz.

Aurten 200 urte betetzen dira Joxe Mari Iparragirre euskal bardoa Urretxun jaio zela. Kantu asko sortu zituen Iparragirrek: ezagunena Gernikako Arbola, baina beste asko ere bai. Haietako bat da `Trapu zaharrak` kantu alaia, trapero bati egin ziona: "Egunez trapu biltzen, gauean dantzan lehertzen, beti umore onean degu pasatzen, eta goizean goiz kalera irtenda lo goxoan daudenak esnatzen ditut. Atera, atera, trapuak saltzera, nik erosten ditut modu onean!". Patxi Danbolinek erakutsi zidan niri kantu hori gitarraz jotzen. Niri eta beste hogeiren bat gazteri, orain 39 urte. 1981 urtea zen, Orioko elizaren saloian biltzen ginen. Kultur exherik eta musika-eskolarik gabeko orduko Orion, elizaren saloiak betetzen zituen bi funtzio horiek. Euskal kulturarentzat ia erabateko basamortua zen giro hartan, elizako saloia zen euskal kulturari toki pixka bat egiten ziona. Eta musika zabaltzen

Danbolin zen ekintzaile sutsuena.

Baina Patxi ez zen egon, Iparragirrerren kantuan bezala, beti umore onean; sufritzea ere tokatu zitzaion. Umezurtz geratu zen 2 urte zituela. Bost senideko familian, 35 urteko aita ito egin zen Orioko barran, Laureano Oliden arrantzalea, Goizeko Izarra baporea olatu izugarri batek iraulita. Aita hilda, etxe hartan gorriak ikusiko zituzten aurrera ateratzeko. Beharbada, haurtzaro zail horrek zaildu zuen Patxi bizitzarako. Agian, aitaren naufragioak eraman zuen haur umezurtza handitan hondoratzen ez diren surf oholak egitera. Baliteke horrexek eraman izana ume hura, mekanika ikasi eta gero, errio ertzean Ur-lan izeneko tailerra jartzera, baporeak-eta mekanizatu eta modernizatzeko.

Haur umezurtz hari, 11 urteko Patxiri, Fabian Loidi apaiz oriotarrak olerki bat jarri zion: Orioko umezurtza, Txiruliruka liburuan argitara eman zuena. Poesia hark 1934an Zarauzko V. Eusko Olerti egunean lehen saria irabazi zuen poemetan.

**PATXIK BETE-BETEAN
BIZI IZAN DU BERE
DENBORA GUZTIAN
MUSIKAREN MUNDUA**

Olerkiak ume haren mina aialtzen du.

Izena Patxiri amaren aldeko aitonarena jarri zioten, Patxi Gonzalez de Txabarrirena. Ezizena ere, Danbolin, hark eman zion. Aitonak txistua eta danbolina jotzen zuen, hortik zetorkion goitizena. Eta inportanteena: musikarako zaletasuna eta joera harengandik zetorkion. Patxiren aitona Patxi, 63 urteko gizona, 1909ko urriaren 3an Laurgaingo sanmieletan txistua jotzera joana zen, han ondoeza sentitu eta biharamunean hil zen; baina haren emaztea, 48 urteko Gregori Arruti, zazpi seme-alaben ama, 3an bertan hil zen, senarraren ondoezaren berri jakin eta ordu gutxitara, senarra baino lehenago, emozioek jota.

Patxi musikazalea

Patxik bete-beteen bizi izan du bere denbora guztian musikaren mundua. Seguru asko, Santiago Azurzarekin emango zituen solfeoko lehen pausoak. Gero gitarra jotzen ikasi zuen, eta organoa. Urte askoan jo izan du organoa Orioko elizkizunetan, baita Aiakoan ere. Gainera, berak zekiena gazteei erakusteko gogoia eta gaitasuna izan zuen. Haurren korua sortu zuen. Xabier Lizasok oso gogoan du: "60 bat ume elkartu ginen koruan, sekulako pazientzia zuen Patxik, toki askotara eraman gintuen kantatzera,



Patxi Oliden Danbolin. IÑIGO GAITON

Kukuarrira, kantu-lehiaketetara..., inoiz irabazi ere bai; umeoi kantatzen erakutsi zigun Danbolinek, eta gu harro sentitzen ginen”.

Baina musikaz gain, beste alor askotako jakinduria pilatu zuen: mekanika, eskulanak, surf oholen fabrikazioa, perretxikoak... Neurri apaleko Leonardo da Vinci txiki bat izan da. Hala esan zuen Unai Manterola apaizak Patxiren hiletan, gizon polifazetikoa izan dela. Apaizak hildakoaren apologia bat egin zuen. Haren kristau-fedea nabarmenduta, Patxiren eskuzabaltasuna aipatu zuen, besteei emateko eta laguntzeko beti erakutsi duen joera, Orioko organo zaharraren ajeen aurrean egindako konponketa-lanak... Eta oso proposamen bitxia egin ere bai udaletxeko agintariei, herritarren aurrean: herriko

kale izendegitik kentzeko militarren izenak eta jartzeko, Patxiren kasuan bezala, herriaren aldeko urtetako lan nekagaitza egin dutenenak.

Patxi Danbolinek beti izan zuen grina handia ikasteko, jakin-mina; eta ikasten bizkorra zen. Horrek eraman zuen, gaztetan mekanika ikasi eta gero, informatika munduan ere murgiltzera. Jubilatuta eta gero ailegatu zitzaion ordenagailuen garaia, askorentzat lasai egon beste helbururik ez dagoenean. Berak ondo ikusi zuen informatikak nolako bideak zabaltzen zizkion. Eta ondo baliatu zituen informatikak musikarako eskaintzen zizkion aukerak, kantuak sortu eta haien partiturak ordenagailuan idatzi eta gordetzeko. Irakasle ere ibili zen, Zubietako lanbide eskolan, gazte jendeari erakusten.

Beti izan zen teknologia berrien zalea eta autodidakta. Horrek eraman zuen surf-taulak egiten hastera. Patxi aitzindari izan zen Euskal Herrian, eta Espainia osoan, surf-oholak egiten. Eta bidea egin zuen alor horretan ere; aipagarria da Oriotik ia atera ez zen gizona surfeko mundu mailako aldizkarietan agertu zela, baita Patxiren artikulua ere: Surf-oholak nola egin, euskara hutsean.

Zerbait berezia bazuen, bai, Danbolinek. Hileta-elizkizunean garbi geratu zen hori, 96 urte lehenago haur jaiotzerria bataiatu zuten elizan. Han ziren surf taldeko gazteak. Han zen azken 10 urteotan eliza zapaldu gabeko laguna. Hilkutxa neskek eta mutilek eraman zuten sorbaldan hartuta. Haur txikiak izan ziren kanposantuan Patxi nola



Mikel Agote surf ohol bat lantzen, atzean Patxi Danbolin duela. IÑIGO GAITON

hilobiratzen zuten ikusten, haien gurasoak haurrei heriotza zer den modu naturalean erakusten...

Gogoan dut 1981ean saloian gitarra-ikastaroa egin genuenok, haren amaieran opari bat egin geniola Patxiri, esker onez, ikastaro hura debaldekoa izan baitzen guztiontzat. Horixe zen Danbolinen beste ezaugarri bat: diruari ez zion atxikimendu handirik. Gitarrako ikasleok liburu bat oparitu genion, perretxikoei buruzko bat; oso gogokoak baitzituen. Bazen jendea, perretxikoak jan aurretik, badaezpada harengana joaten zena.

Herria maite zuen eta herriak maite zuen

Ezagutu benetan ondo bere herria ezagutzen zuen, Orio. 2008an liburu bat idatzi zuen, Udalak plazaratu ziona: Orio herrixka. Liburuan berak txikitan ezagutu zuen herria agertzen du, kalez kale, txokoz txoko, denak zehatz-mehatz azalduta. Nekez ezagutuko du

beste batek hobeto herria. `Orioko euskara´ liburua plazaratu genuenean ere atal batean Orioko izen toponimikoak jaso genituen, Patxik emandako errioko eta kostaldeko toki-izenak, adibidez, herriko dantza taldeak bere burua izendatzeko hartu zuen Harribil izena.

Patxik maite zuen, bai, bere herria. Horregatik zuen gogokoa arrauna ere. Nabarmen utzi zuen hori Elhuyar aldizkari zientifikoan argitaratu zuen arraunaren alderdi teknikoari buruzko artikuluan. Baina zerbaiti erakutsi baldin bazion atxikimendua, gure hizkuntzari izan zen, euskarari. Min hartzen zuen zenbaiten trakeskeriekin. Zorrotzegia izaten ere bazekien, jendearen hizketaldietan antzematen zituen okerrak zuzentzeko joera zuen; baina sutu batez ere bertako batzuek euskararen erabilera erakusten zuten utzikeriak sutzen zuen.

Danbolinek kantu asko utzi ditu idatzita. Ereserki bat ere

bai: Orioko martxa. Herrian musika-eskola sortu zenean, Danbolin izena eman zioten, haren omenez. Baina Danbolin eskola baino askoz lehenago izan genuen herrian Patxi Danbolinen musika-eskola.

Orio herri kantuzalea izan da beti. Fama hori izan du, aspaldiko urteotan kantu giroa kalean ederki jaitsita baldin badago ere. Kanturako grina hori sustatzen ibili direnetako bat dugu Patxi. Herriko musikarien historian sartu ziren hiltzean: Celestino Agirresarobe, Joxepa Treku, Santiago Azurza, Joakin Aldabe, Felipe Arostegi, Alberto Oliden, Juan Jose Iruretagoiena, Antonino Agirre, Oihana Alkorta... Orain Patxi ere bai, tokia irabazi du Orioko historian musikaren alorrean ekarpen handia egin dutenen artean.

Elizan herriak egin zion agurraren ondoren, zimitorio zaharrean zain zituen musika-eskolako zenbait gazte, musikaz emateko azken agurra; Danbolinek berak sortutako Orioko martxa jo zuten, Patxik herriari utzitako ereserki alaia.

Patxi joan zaigu, baina hark sortutakoa hemen gelditu da. Jendeak musika-eskolaren aurretik pasatzean gogoratuko du Danbolin, eskolaren izena ikustean; eta jai-giroan, festetan, kalez kale, txaranga Orioko martxa jotzen entzuten dugunean. ■■■



BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK

- Lurrak-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturgintza
- Elektrizitatea

Gale Bask S.L.

Kale Nagusia, 2 behea (20810 Orio)
Telf./Fax-a: 943-13 47 17 · 638 61 03 43 · 638 61 03 49
galebask@hotmail.com

azkue
karrozeriak



Ubegun industrialdea, 7
AIA-ORIO
943-83 51 86

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA



GELATO

943-57 81 76
Herriko enparantzan

Izozki naturalak — Opilak


Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09

Lagundu plastikoak murrizten

1. Zuzenean otarrean sartu produktua
2. Behar baduzu, eskatu eta eraman ebatera gure poltsa berrerabilgaria
3. Hurrengoan, ebetik ekar ditzakezu poltsak

GOZATEGI



FRUTADENDA

GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com

IGLESIAS SARRAILAGILEAK



iglesiascerrajereros@yahoo.es
www.iglesiascerrajereros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08

24orduko zerbitzua

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

ITZIAR KIROLOAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03

Joseba
ARROZTEGIA · CARPINTERIA



687 683 427
josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOAK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- ARROZTEGIA OROKORREAN

Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

Seguros Bilbao



Santi Barranco
Orioko Ordezkarria

Endaia Enparantza, 1 · ORIO · sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 · 688 71 48 69

K.U.K.U.A.R.R.I
ELEKTRIZITATEA



943-10 01 81 · 640 28 13 08
Zigordia, 52 behea C · ZARAUTZ
kukuarri@kukuarri.com

"Mexikon txikitatik hasten zaizkizu pikantea ematen"



ANGELICA ACOSTA

Oraindik ez baina, ezeren okerrik ez dela, aurki egingo ditu urte gehiago Orion Mexiko bere jaioterrian baino. Ia 20 urte daramatza gure artean, baina ez dago hangoaz ahazteko. Doratutako takoak egitea proposatu digu, bere etxean ikaragarri gustura jaten dituztelako, batez ere.

Zein da janari mexikarraren oinarria?

Frijoleak –babarrun moduko bat–, artoa eta txilea dira osagai nagusiak. Barbakoa ere maiz egiten da; arkumea, esaterako.

Modu berezian prestatzen da, ezta?

Bai. Lurrean zuloa egin eta kaktus mota bateko hostoekin betetzen da, gainean haragia jarritz. Ondoren, haragiak soltatzan duen zukuarekin eltzean salda edo zopa egiten da, arroz eta garbantzuekin. *Carnitas* delakoak ere oso tipikoak dira: txerri haragia kobrezko eltze batean egosten da laranja zukuarekin.

Non ikasi zenuen sukaldean?

Amak etxetik kanpo lan egiten zuen, eta amonarekin egoten nintzen. Lehengo garaietan, emakumeek batez ere etxeko lanak ikas genituzan saiatzen ziren. 12 edo 13 urtetatik aurrera

hasiko nintzen sukaldean. Janaria berotzen lehendabizi, eta gero, asteburuetan, familia elkartzen ginen garaian, bakoitzak zerbait prestatzen. *Sopes*-ak adibidez, igandetako jakia izaten ziren, eta denen artean egiten genituen. Oroitzapen ederrak ditut. Unibertsitatean Turismoa ikasi nuen, eta han ere gastronomia ikastea tokatu zitzaidan. Betidanik sukaldean, beraz; gustuko dut, gainera.

Hemen, etxean, zer jaten duzue?

Janari mexikarra lehen baino gehiago jaten dugu. Duela 20 urte zaila zen arto-irina eskuratzea. Gabonetan bakarrik jaten genuen handik ekartzen nuenarekin. Orain errazagoa da, hipermerkatu handietan arto-irin zuria edo horia aurki dezakezulako. Gaur egun, jalapeñoak eta guzti aurki ditzakezu zenbait dendatan.

Eta pikantera, nola ohitzen da bat?

Mexikon txikitatik hasten zaizkizu pikantea ematen. Eskola atarietan postuak egoten dira fruta edo berdura pikantearekin. Limoi zukua eta pikante hautsarekin saltzen dira, eta *chilepequin* izena dute. Litxarreriek ere, gutxiago edo gehiago, denek dute pikantea. Beraz, bospasei urte dituzunetik, nonahi pikantea

dastatzen hasten zara. Gure seme-alabak ere ohitzen joan dira. Semeari gehiago kostatzen zaio, baina zaharrena, alaba, amorratua da.

Eta, hemendik, euskal sukaldetik, zerk harritu zintuen gehien?

Txipiroiak bere saltsa beltz horrekin. Hasieran atzera egiten zidan, baina orain ikaragarri gustatzen zaizkit. Txuletek ere bai, horren gutxi eginda haragia. Hango antzera, aldiz, tripakiak prestatzen dira hemen, *panzitas* deitzen diegu guk, igualtsuak dira; hori bai, pikantearekin.

Gune turistikoek gain, zer nabarmenduko zenuke Mexikoz?

Herrialdea oso aberatsa da, denetik dugu: mendia, elurra, hiriak, itsasoa, arrezifeak, hondartza, desertua... okerrera da ez dakigula zer daukagun! Atzerriko esplotazioa ere oso handia da. Jendeari dagokionez, joera daukagu kanpokoa bertakoa baino hobetzat ikusteko. Badago lurrezko eltze batean kanelarekin egiten den kafe bat, *cafe de olla* deitzen dioguna, oso goxoa, eta 50 zentimo edo gutxiago kostatzen zaizuna. Ba, Starbucks-en kafe mota hori 5 euro ordaintzen dituzu, eta jendea joan, eta ordaindu, ordaindu egiten du. ■■■



Tako doratuak

Osagaiak

- Haragia edo oilaskoa
- Tipula
- Tomate txikitua
- Baratxuria
- Olio
- Gatza

- Takoak egiteko:
 - Arto-irina
 - Ura

- Takoen lagungarri:
 - Letxuga
 - Saltsa pikantea
 - Esne-gain garratza

Prestaketa

Lehenik, gisatzeko haragia egosten jartzen da tipula, baratxuri eta gatzarekin. Behin egosita, haragia izpitzen da, eta aparte jartzen da.

Bestetik, tipula juliana erara mozten da, eta potxatu ondoren, baratxuria eta tomate txikitua eransten zaio. Horri, haragia gehitzen zaio, pixkanaka, zaporea hartzen joateko.

Takoak taloen modura egiten dira, arto-irin eta ur pixka batekin. Takoak eginda, horien gainera haragi nahasketa bota eta takotan kiribiltzen dira, puru bat balira bezala.

Takoak kiribilduta geratzen ez badira, zotz bat edo beste jar daiteke frijitzeko garaian ireki ez daitezen. Zartaginean frijitu behar dira doratu arte.

Platerean esne-gain garratzarekin zerbitzatuko dira (lokutorioetan topatu daiteke), letxuga eta saltsa pikantearekin. Saltsa hemengo tomatearekin eta gindillekin egin daiteke.

"Oteizaren lan batzuekin erakusketa finkoa eduki behar genuke herrian"

IÑAKI ARRILLAGA MARGOLARIA

Laneko erretiroa hartu zuenetik buru-belarri dabil Iñaki Arrillaga (Orio, 1952) bere 'kartoiaren tailerrean', hainbat sorkuntza lanetan. Olio-pinturaz eta akrilikoz osatutako paisaien margoekin murgildu zen artearen munduan eta, orain, eboluzio baten ondoren, abstrakzio geometrikoa eta digitalki sortzen dituen Pop Art itxurako ilustrazioak egiteari ekin dio.

Testua: **Intza Unanue Arruabarrena**. Argazkiak: **Intza Unanue Arruabarrena eta utzitakoak**.

Erretiroa hartzearekin batera, buru-belarri sartu zara artearen munduan, baina lehenago ere bazinen sortzailea.

Bai, aspaldi hasi nintzen olio-pinturan eta akrilikoan margotzen. Lan figuratiboak egiten nituen, paisaiak, bodegoiak... denborapasa modura.

Pixkanaka, beste teknika eta elementu batzuk begiratzen hasi nintzen. Nire ikasketari esker, dibujoa betitik menderatu dut, eta horrek asko lagundu dit.

Orduan egin zenuen topo Jorge Oteizarekin?

Bai. Egia esan, betidanik izan dut buruan Jorge Oteiza. Lilura berezia sortzen didate bere kaxa hutsek. Niretzat bere lanik gailurrenetakoak dira. Arkitektura aldetik ere erreferenteak izan dira lan horiek. Orain dela gutxi Moneok, Kursaalaren arkitektoak, esan zuen bere lanak baduela Oteizaren kutsua.

Kubo hutsak, beraz.

Bai. Kubo hutsetan jarri nuen arreta, pieza guztien argazkiak hartu eta despiezeak egin nituen. Konturatu nintzen guztira hamabi bat kaxa ezberdin zirela, baina bazutela zerbait lotzen zituena. Horrela, nola eginak zeuden aztertzen

hasi nintzen, eta denak banan-banan eskalan egin nituen kartoiarekin. Informazio bila nembilela, kaxa horien izen arraroekin egin nuen topo: Malevich, Tatlin... gizon horiek nor ziren jakiteko kuriositatea sortu zitzaidan.

Nolabait, jakin nahi zenuen Oteizarekin zuten lotura?

Bai, hori da. Jakin nuen Kazimir Malevich orain dela ehun bat urte bizi izan zen margolari errusiar bat zela. Oso sorkuntza berritzaileak egin zituen, tartean, Oteizak kubo horiek egiteko erabili zuen Malevich unitateak. Et, a horri helduta, Zergatik Hamalau bilduma sortu nuen, eta Zumaiako Oxford aretoan jarri nuen erakusketa.

Malevich Unitatearekin eginiko piezek osatzen dute, beraz, Zergatik Hamalau lana.

Hainbat arte mota uztartu ditut Zergatik Hamalau bilduman, baina denak abstrakzio geometrikoan oinarrituta daude. Alde batetik, kuboen irudikapenak daude. Oteizak berak, zortzi unitate erabilia, forma, era eta posizio ezberdinetan kokatuta sortu zituen elementu guztiak. Nik nire lanetan ere horixe egin dut, nire ikuspuntu propioa emanaz. Sorkuntza horiek koadro gisa egin ditut. Guztira berrogei inguru dira. Bi dimentsiotan ikus daitezke kuboak, burdin itxura





Iñaki Arrillaga bere estudioan.



Arrillaga kartoiarekin lanean.

duen paper berezi batekin collage antzerako zerbait osatuta. Etorkizun batean hirugarren dimentsio bat ateratzeko asmoarekin egin nituen. Oteizak kleraren lantegia zuen moduan, nik kartoiarena dut. Eta irudi horiei hirugarren dimentsioa ateratako kartoiari ari naiz egiten

kuboak, etorkizun batean burdinera pasatzeko asmoarekin.

Koadroez gain, eskulturak daude.

Bai, hori da. Oteizaren apostoluen bozetoak egiten hasi nintzen eta gaiari forma ematen. Marrazkiak osatzen hasterakoan besoak, eskuak eta arraunak gehitzeko beharra sentitu nuen. Forma originaletik abiatuta, nire ikuspuntua gehitu nien apostoluei. Egia da denak antzekoak direla gerritik behera, baina gerritik gora irudi ezberdina dute denek; batzuk gora begira daude Pietateari begira, sekulako duintasunarekin. Duintasun horri eutsi nion, eta bira berri bat eman nien siluetei.

Apostoluei arraunlari itxura eman zenien, arraun eta guzti. Zergatik?

Beti entzun izan dut apostolu horiek Orioko arraunlariak zirela, eta barnean gorde dudan zerbait izan da. Seguruena Oteizak inguruko arraunlariak irudikatu zituen bertan. Itsasadarrean gora eta behera ikusiko zituen arraunlariak bere etxeko leihotik, eta gustatu egiten zait pentsatzea apostoluek arraunlari haien arimaren parte bat dutela. Kuriosoa da, apostoluak jarrita dauden frisoak 12 metro baititu, traineru batek bezala.

Arraunerako duzun zaletasunak ere izango zuen eraginik irudikapena egiterakoan.



Arrillaga Zumaiaiko Oxford aretoan jarri zuen erakusketan.



Iñaki Arrillagaren apostoluen irudia.

**"BADUT LOTURA ESTUA
ARRAUNAREKIN ETA ZIURRENIK
ERAGINA IZAN DU NIRE SORKUNTZAN"**

**"BETI ENTZUN IZAN DUT OTEIZAREN
APOSTOLUAK ORIOKO
ARRAUNLARIAK ZIRELA"**

**"OTEIZAREN APOSTOLUAK JARRITA
DAUDEN FRISOAK 12 METRO DITU,
TRAINERU BATEK BEZALA"**

Ziurrenik bai. Umea nintzenetik barruan daramat arrauna, nire etxean aita, osabak... arraunlariak izandakoak ziren eta horixe ikasi nuen etxean. Arraunlari ibili nintzen 1970eko hamarkadan urte batzuez, eta gero, 1990eko hamarkadan urte batzuk egin nituen Orio Arraunketa Elkarteko zuzendaritzan. Badituz Kontxako bandera eta Espainiako Txapelketak hainbat modalitatetan. Baina oroitzapen berezia dut 1973ko Espainiako txapela lortu genuenean 8+ modalitatean Banyolesen (Herrialde Katalanak). Geroztik ez zen berriz lortu garaipenik 1994ra arte, pentsa! Datu bat emango dizut, konturatuak nolako garrantzia eman zitzaion txapelketa hari: txapelketa irabazi eta astelehenean autobusean bueltatu ginen, eta bidera atera zitzaizkigun oriotar zaleak; Tolosan zain genituen, Aginan ere bai, eta Orioraino lagundu ziguten. Beraz, oriotar gehienok bezala badut lotura estua arraunarekin eta ziurrenik eragina izan duela nire sorkuntzei ikuspuntu propioa ematerako prozesuan.

Zergatik hamalau bildumarako egin zenituen figurak, eta orain Orio Arraunketa Elkarteko emakume arraunlarien irudikapen bilakatu dira. Zu bezalako arraunzale batentzat ohorea izango zen proiektu honetan parte hartzea...

Egia esan oso polita eta aberasgarria izan da niretzat, eta denbora berrien adierazgarria ere bai. **Nolatan sortu da OAErekin lankidetzan egindako proiektu honen ideia?**

Kasualitate hutsa izan da dena. Anuska Esnal alkateak bere bulegoan zuen nire apostoluetako baten irudia, burdinezkoa. Egin nuenean berehala otu zitzaidan sari gisa emateko pieza interesgarria izan zitekeela, kopa single bat eman beharrean. Orio biltzen duen sorkuntza bat iruditzen zitzaidan, arrauna eta Oteiza batzen dituen, indarra eta pasioa. Iosu Esnaola OAEko presidentek ere, egun batean Esnalen bulegoan ikusi, eta ikaragarri gustatu omen zitzaion. Nirekin harremanetan jarri zen, adostu genuen klubak jendeari oroigarri gisa oparituko ziola. Hortik sortu da beste guztia. Emakumeen garaipena zela eta Hamalau apostoluak sortzeko ideia atera zen. Polita iruditu zitzaidan, gustura geratu nintzen emaitzarekin. Herritarrek ere aipatu didate gustatu zaiela ideia, eta hori beti hartzen da gustura.

Zure lan guztiak, ordea, ez dira Oteizaren eta arraunaren inguruan eginak.

Ez, niri lan inpresionistak asko gustatu izan zaizkit beti, baina aldi berean, autodidakta izan naiz beti.



Orioko arraun elkarteko emakume arraunlariekin egindako proiektuaren bozetoa.

Horrek ekartzen dituen mugekin. Gustu gutxiagorekin edo gehiagorekin, baina bakarrik jardun naiz beti lanean. Guztira 80 bat koadro baditut jasota, baina batzuk ez ditut erakusten. Pixkanaka teknika hobetzen joan naiz, eta lanetan asko nabari da hori.

Autodidakta izatea zaila dela esango zenuke?

Niri behintzat ez zait egin zaila. Izan ere, nire ogibidea beste lanbide bat izan denez, erretiroa hartu bitartean ez dut aspektu hori aurrera ateratzeko beharrik izan. Artea hobby moduko bat izan da niretzat, ez dut inoiz pentsatu ogibide bilakatzerik. Eta eskerrak. Orain ordu asko pasatzen ditut, batez ere buruari bueltak ematen. Zerbait ikusten dut eta nola egin edo nola kokatu pentsatzen hasten naiz; lehen ez nuen denborarik horretarako.

Zer da momentu honetan gehien gustatzen zaizuna denborapasa honetatik?

Espazioa. Gutxienez bi adar desberdinetan jarduten naiz aldi berean. Hartara, nekerik ez zait sartzen. Nekea oso kontzeptu espaziala da. Aurreneko lanean edo espazioan ezinean banabil edo gogaitua sentitzen banaiz, hurrengora

pasatzen naiz. Lanez aldatzean indarberrituta sentitzen naiz berriz ere, espazioz eta lan lineaz aldatzean desagertu egiten baita nekea.

Zer lantzen ari zara orain?

Oraintxe bertan digitalki sortzen ditudan irudiekin nabil buru-belarri.

Digitalki lan egiteak aurretik ikaskuntza prozesu bat izango du, ezta?

Bai, eta saiatu naiz horretan. Diseinu grafikoko ikastaro batzuk hartzeko gogoa sartu zitzaidan adar honekin hasi aurretik, saiatu nintzen Donostian eta aurkitzen, baina jubilatua naizenez, ezin izan dut ezer lortu. Neure kontura ikasten hasi nintzen. Liburuak eta behar nuen programa erosi nituen, eta hortxe jarduten naiz, egunero zerbait berria ikasten.

Ba al dute izenik sortze bidean dituzun irudi digital horiek?

Pop Art deitzen diot nik.

Nola sortzen dituzu irudiak?

Orain arte egin ditudanak arraunari lotutako irudiak izan dira. Argazki bat aukeratzen dut, eta bertatik abiatuta, programa baten bitartez trazuak sortzen ditut irudia osatzeraino.

Beraz, Pop Art bilduman ere arrauna da nagusi. Zergatik?

Oriokoa naizelako, kar-kar. Nik uste dut oso erakargarria dela figura horiek arraunari lotuta garatzea. Hala ere, teknika horrekin irudi arkitektonikoagoak egiten ere hasia naiz: Frantses eta Arozenako fabrikak irudikatu ditut, baita Salatxo ere... Kartel vintageak izango balira bezala ari naiz egiten, koloreekin jolastuz eta abar. Probak egiten ari naiz oraindik.

Kolorea aipatu duzunez, zein da gehien erabiltzen duzun paleta?

Beltza erabiltzen dut gehiena. Maleviche eta horiek ere beltza, gorria eta urdina erabiltzen zituzten. Oso kolore gutxi. Egia da kartel vintage estiloan egiten ari naizen lan horiek kolore gehiago dituztela, berdea, urdina... baina denak ere saturazio gutxiko koloreak dira.

Orokorrean, jendeak zure lana baloratzen duela esango zenuke?

Oso zaila da nik egiten ditudan sorkuntzak ikustea eta ulertzea. Askok esan didate ez zaiela gustatu egin dudan hori. Baina oso positiboa iruditzen zait iritzi hori, nik neure gustuko lana egiten

baitut. Baina norbaitek bere iritzia emateak esan nahi du saiatu direla ulertzen. Beraz, baloratzen duten seinale da.

Batek baino gehiagok esan dit lan asko egin dudala eta asko eskertzen da hori entzutea. Izan ere, lan eta denbora asko dago atzean. Nik arrazoi batetik abiatuta egiten dut dena. Espazioen oreka aurkitzen saiatzen naiz nire obretan. Jendeak pentsa dezake edozein modutara eginda daudela, baina ez, lan asko dute atzean.

Orion arteak behar lukeen tokia duela uste duzu?

Ez Orion eta ez beste inon. Galdera horri lotuta, udalari eskatu nahi diot sustatu dezala lankidetzat Oteiza Fundazioarekin. Uste dut herrian erakusketa finko bat eduki beharko genukeela Oteizaren hainbat lanekin. Noski, horretarako lokal egoki bat beharko genuke. Orioko herritar bezala horren alde lan egin beharko genukeela iruditzen zait, ikaragarri irabaziko bailuke herriak. Oteiza Fundazioarekin hitz eginda, iruditzen zait lortuko genukeela, aurtengo udazkenean San Juanen egon baita erakusketa bat. Beraz, badago batetik bestera dabilen material bat. Udalak lana egin beharko luke horren alde. ■■■



VILLA ANTILLA
HOTEL & THALASSO

San Valentín eguneko Menu Berezia

(otsailak 14, 15 eta 16)

Ongietorriko cava kopa
Ahuntz gazta pate trufatua, fruitu lehor eta ezti aromarekin
Hegalabur tartarra fruta tropikalekin eta sesamo eta konbu emultsioarekin
Almeja lurruneztatuak itsas gatzarekin
Legatza alioli gratinatua aren aparrarekin eta limoi berdearen krema finarekin
Ahate kurruskaria sagar konfiturarekin, fruitu gorriekin eta patxaranarekin
Gazta eta marrubi naturalen hostopila, aroma zitrikoekin
Ogia, ardoa eta ura

49 euro

OTSAILAREN 14ko AFALOSTEAN,
DANTZALDIA DJarekin!



HOTEL & THALASSO VILLA ANTILLA · 943-89 21 02 · reservas@villaantilla.com · HONDARTZA BIDEA 1, ORIO



**Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa**

generoa  garraioak 

ibilbideak  kamarak 

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

**EMAKUMEEN
UNEA
IRITSI
DA**

Realaren garaipen historikoa
oroitzeko erretilua **HITZA**ren eskutik

TXAPELDUNAK!

ERREGINAREN KOPA 2019

HITZA HITZA HITZA HITZA HITZA

12€
8€

Salmenta puntuak:
ORIO Sukia taberna. Ontza paperdenda. Baraka taberna.

* HITZAko HARPIDEK eta KARKARAKO BAZKIDEK 8 euroan (MEDABIDEEN EGOITZETAN erosi beharko dituzte)

UKT KUBOLA KOSTAKO HITZA



BIYONA

BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak etxeko altzariak

eraberritzekotan?

Bisita gaitzazu

 Abendaño poligonoa, 2 · ZARAUTZ ·  943-13 50 16 · www.biyona.net



Egin zaitez KARKARA laguntzaile

Zergatik KARKARA laguntzaile?

- Nire herriaz kalitatezko eta gertuko informazioa jasotzen jarraitu nahi dudalako. Hilero nire etxean eta uneoro **karkara.eus**-en.
 - Euskaraz bizi nahi dudalako eta euskararen biziberritzea bultzatu nahi dudalako.
 - **KARKARA**laguntzailearen abantailez gozatu nahi dudalako.
- KARKARA**laguntzaile izateko deitu **688 85 96 82** zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Urteko kuota: 36 euro.

ABENDUKO ZOKETEN IRABAZLEAK:

Benito Lertxundiren liburua+diskoak.

Kultur bonoak.



Lourdes Gabilondoren alaba saria jasotzen.



Maitane eta Irati Azkueri tokatu zitzaizkien kultur bonoak.

Hil honetako KARKARA



Alos Quartet laukotearen kontzertua

2 sarrera bikoitz

Otsailak 7, 22:00etan, Orioko Kultur Etxean



Bidasoa Irun eskubaloia Sarrera bikoitz bat eta kamiseta sinatua

Otsailak 5, 19:00etan, Artaleku kiroldegian - IRUN



Mikel Markez kontzertua

Sarrera bikoitz bat


Otsailak 29, 22:30ean, Aiako probalekuan

PARTE HARTZEKO:

Deitu 688 85 96 82 zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Parte hartzeko epea gaurtik otsailaren 5ko eguerdiko 12:00ak arte. Irabazlearen izena KARKARAko hurrengo zenbakian argitaratuko da. KARKARA



KAIOA

 kaioa_denda
 www.kaioa.es

kutixi kafetegia

Aritzaga 9 • ORIO • 943-13 15 17



KATU HORIA

albariaritza klinika

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larriondia
668891129

Lizaso Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com



KORTABERRI

arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



MARIJO

ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO
943-13 47 29

libe

dietetika
elikadura aholkularitza

Eusko gudariak, 35 · ORIO
(sarrera Arrantzale kaletik)

943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com




Ordo elikatuz Bizi

MENDIZABAL AROTZEGIA


Neurriko armairuak eta egurlanak

Altxerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net



niko taberna

Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 · 20810 Orío · Egin erreserba 943-53 61 27

Oreka

fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia



Zarautz

Araba kalea, 35
ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus

Beilatokia
Lekualdatzeak
Eginbide guztien tramitazioa

24 ordu
zure zerbitzura

Aurrera begira



ELI HUEGUN

Ez dizuet galdetuko zer moduz hasi duzuen urte berria, ez dizuet berriz erantzunaraziko, ziur bainago hilabete honetan lehen aldiz ikusi duzuen pertsona bakoitzarekin elkarrizketa horrela hasi duzuenaz.

Ez dakit nondik datorren urtearen amaierara iritsitakoan atzera begira jartzeko ohitura hori, urteak emandakoak gogoratzekoa. Aurtengoan, gainera, hamarkadakoak ere sartu dira. Ez daukat horretan hasteko asmorik, urtea nola hasi den ikusita hobe izango baitut joandakoari erreparatu beharrean aurretik datorrenari heltzea.

Espainiak Presidente berria edukitzea izango da albisterik xelebreena beharbada, azken hilabeteetako dinamika ikusita berrikuntza galanta baita.

Horrez gain, indartsu sartu da urtarrila. Gabonetako oportetarik lanera bueltatzerako, anginek egina zidaten bisita. Gogoan dut nola orain dela hiru edo lau urte lankide bati esan nion ni bost urtean behin gaixotzen nintzela. Hilabete baino lehen harrapatu nuen lehenengo gripea eta orduz gero, urtean gutxienez behin, egun batzuk pasatu behar izaten ditut ohean. Ez dakit karma den edo adinak eragiten duen. Biek, agian.

Egun batzuk lehenago Gabonetako erosketak egitera joan nintzen Gipuzkoan dauzkagun saltoki erraldoi horietako batera (nahiz eta beste hirietan daudenekin alderatuta txindurri txikiak diruditen). Beherapenik handienak, airean zebiltzan birusenak, mordoxka bat motxilan sartuta bueltatu bainintzen etxera, guztiz doan.

Errealak jada eman dit urteko lehenengo disgustua, baina tira, ez diot hari horri askorik tirako. Izan ere, asko maite duenak asko sufritzen daki.

Patxi Danbolin ere joan zaigu. Ume txikia nintzenean ez nuen ezagutzen, baina 10 bat urteren bueltan ginenetik izan genituen hainbat pasarte harekin lotuak. Lehenengoa musika eskola berria egin zenekoa da, Danbolin deitu behar ziotela eta (logoa aukeratzeko egin zen lehiaketak aparteko idatzia mereziko luke), lagun artean ez genekien zergatik. Galdera egingo genuen, nonbait, eta orduan azaldu ziguten eskolan nor zen Patxi Danbolin eta zergatik jarriko zioten musika eskolari haren izena.

Pertsona berberak musikarako sormena eta surf oholak egiteko gaitasunaren uztarketak txunditu ninduen. Are gehiago, 6.mailan bere tailerrera bisita egin genuenean, orduan ere eskolatik. Bazen txoko hartan moldaketarako tramankulua, baita egur eta eskulanerako produktu usaina ere. Pozik bueltatu ginen handik, irudimena dantzan jarri baitzigun. Guk imajinatu, baina hark eraiki ere egiten zituen. Herriari eman ziona jasoko ote zuen bueltan. Berak bakarrik daki. ■■■

EZ DAKIT NONDIK DATORREN URTEAREN AMAIERAN ATZERA BEGIRA JARTZEKO OHITURA HORI

Bizitza duina lortzeko borrokan

Milaka lagunek lan, pentsio eta bizitza duinak aldarrikatu zituzten ostegunean, urtarrilak 30, Euskal Herrian. Dena dela, mobilizazio jendetsua ez zen bat-batekoa izan, azken urteetan gizarte zibila osatzen duten mugimenduak bakoitza bere aldetik mobilizatu baita. Ostegunean, ordea, indarrak batu zituzten herritarrek bizitza duina izateko duten eskubidea erdigunean jartzeko.

Testua eta argazkiak: **Aiora Larrañaga Solaberrieta.**

Euskal Herriko milaka lagunek greba egin zuten ostegunean, urtarrilak 30, eta kalera atera ziren lan, pentsio eta bizitza duinak aldarrikatzera. Hasiara batean, Euskal Herriko Karta Sozialak deitu zuen mobilizatzera, eta ondoren bat egin zuten sindikatuek eta gizarte arloko eragileek. Hala, herriz herri antolatu zen gizarte zibila, eta Orion ere sortu zuten Greba Orokorraren Orioko Batzordea. Batzorde horretako bozeramaile Esther Arrutiren esanetan, ohartuta zeuden gizarte zibila osatzen duten mugimenduak bakoitza bere aldetik mobilizatzen ari zirela, eta aldarrikapen asko eta oso indartsuak sortu direla azken urteetan Euskal Herrian. “Pentsiodunek ia bi urte daramate astero elkarretaratzeak egiten; lan arloan ohikoak dira hitzarmen duinak lortzeko borrokak; gazteek bat egin dute mugimendu ekologistarekin eta kalera atera dira; eta mugimendu feministak ere indar handia hartu du”. Aldarrikapen horiek guztiek bizitza duina oinarrian dutela ikusita, greba orokorra deitzeko beharra sentitu zuten. Izan ere, lan harremanak, pentsio sistema, politika, hezkuntza, kultura, ingurumena eta beste hainbat arlo gutxi batzuen neurrira egindako eredu baten parte direla uste dute.

Orion herriko bi eragilek bat egin zuten ostegunerako deitutako grebarekin: Xaltxerak talde feministak eta Etxeluze gaztetxeak. Greba egin eta kalera ateratzeko arrazoi indartsuak dituztela aldarrikatu zuten. Batetik, feministek argi dute gizarteak “bizitza erdigunean” jarri nahi duela, “aurre egiteko indarkeriari, berdintasun ezari, prekarietateari, sexualitate eredu hegemonikoei, lanen sexuaren araberako banaketari, kontsumo ereduari, familia patriarkalari, jakintzaren hierarkiari, arrazakeriari, edertasun kanonari, eta zapalkuntza guztiei”.

“Baliabide mugatuak dituen planeta honetan, bizitzaren jasangarritasun kolektiboa bermatzea eta elkarren arteko menpekotasuna onartzea eskatzen dugu; izan ere, zaintza lanei ez



zaie oraindik ere baliorik ematen, eta emakumeen gain uzten dira. Horren aurrean, zaintzen kudeaketaren ariketa kolektiboa egitea proposatzen dugu”. Horregatik, garrantzitsua iruditu zitzaizen bizitza duina aldarrikatzen duen greba orokorrean parte hartzea.

Gazteen prekarietatea

Etxeluze gaztetxeko kideen iritziz, berriz, krisiaren aitzakiapean politika neoliberalak aplikatu dira, eta uste dute horrek helburu bakar eta garbi bat izan duela: “Iraganean eskuratutako lorpenak ezabatu nahi izan dituzte”. Beraien ustez, egungo testuinguru sozioekonomikoa aztertuz gero, “prekarietatea orokortua dela esan daiteke”, eta “gazteei modu berezian” eragiten diela adierazi dute. “Ikasketetan LOMCE legea dela-eta ikasketen pribatizazioa jasan dugu, ordaindu gabeko praktikaldiak, kaleratzeak eta langabezia ohikoa dira gazteon bizitzan. Gainera, lan munduak gazteoi eskaintzen dizkigun baldintza prekarioen ondorioz, kontraturik gabe ere lan egiten dugu, enplegu bat baino gehiago dauzkagu, edo lanaldi partzialak eta aldi baterakoak”. Bestalde, lana izanda ere, espekulazioaren eraginez ordainezinak diren etxebizitzaren alokairuei aurre egin behar dietela salatzen dute. Azaldutako arrazoiak kontuan hartuta, gazteek uste dute ez zaiela arrazoirik falta izan grebarekin bat egiteko.

Egindako deskribapen orokorretik gazteen bizitzan zuzenean eragiten duten bi alderdi azpimarratu nahi izan dituzte: lana eta

Greba orokorreko eskakizunak pankarta batean jasota.



Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.

"GAZTEEN LAN BALDINTZAK HOBETZEKO EZINBESTEKOA DA LAN ERREFORMA EZABATZEA"

PENSIO DUINEN ALDEKO ALDARRIAN IDEOLOGIA GUZTIETAKO HERRITARREK BAT EGITEA NAHI DU ZAHARREN BABESLEKUAK

etxebizitza. "Gazteok azken urteetako prekarietate gogorrena ari gara bizitzen ikasketak amaitu eta lan munduan sartzen garenean. Lehenik, bekadun moduan aritzen gara sosik kobratu gabe, eta gero, praktiketako kontratuekin bi urte luzez. Suerte pixka batekin, enpresan onartuak izan eta behin-behinean egotea lor dezakegu beste bi urtez, eta baikor jarrita, kasurik onenetan, kontratu mugagabe bat lortzen dugu. Ahaztu gabe, bide horretan azpikontratatuta amai

dezakegula". Beraz, argi dute gazteen lan baldintzak hobetzeko ezinbestekoa dela lan erreforma ezabatzea. "1.200 euroko gutxieneko soldata bermatu eta 35 orduko lan astea ezarri behar da, lan duinagoa lortu eta aberastasuna hobeto banatzeko".

Etxebizitzaren gaiak ere kezkatzen ditu gazteak. Jakin badakite eskubide unibertsala dela etxebizitza duina izatea, baina euskal gizartea egoera horretatik oso urrun dagoela nabarmendu nahi dute: "Gipuzkoan ditugu Euskal Herriko etxebizitza garestienak. Batezbeste alokairuaren prezioa hilean 952,2 eurotakoa da EAEn, eta gazteen batezbesteko soldata, berriz, 996 eurokoa da Gipuzkoan. Ondorioz, gazte batek lan prekario bat badu eta independentizatzeko aukerarik ez badu, bere proiektu pertsonalak gauzatzeko eta bizitza erdigunean kokatuko duen egoera duin bat izateko aukera galtzen du". Egoera larriaren aurrean, erantzuteko garaia dela uste dute. "Badirudi gazteok ohitzen ari garela baldintza hauetan bizitzera, eta hau oso larria da. Gizarteak ulertu behar du pobrezia eta prekarietatea zabaltzea guztiontzat kalte segurua dela, eta etorkizunera begira, gazteentzat zer esanik ez".

Pentsiodunek, beste ikuspegi bat

Urtarrilaren 30eko greba orokorra gizarte arloko greba izatea nahi zuten antolatzaileek, eta tokian tokiko eragileak grebarekin bat egitera deitu zituzten. Orion sindikatuez eta norbanakoez gain, Xaltxerak talde feministak eta Etxeluze gaztetxeak egin zuten bat greba orokorrarekin, baina azken bi urteetan pentsio duinen aldeko elkarretaratzeak antolatu dituen Zaharren Babeslekuak ez zuen grebaren antolaketan eragile moduan parte hartu nahi izan, "greba politikoa" zela iritzita. Zaharren Babeslekuko ordezkarien esanetan, elkartearantz oso garrantzitsua da "politika gaiekin ez nahastea". "Ia bi urte daramagu pentsio duinen alde borrokan. Guretzat oso gai garrantzitsua da, gure eskubideak eta gainontzeko herritarrenak baitaude jokoan. Horregatik, nahi dugu pentsio duinen aldeko aldarrian ideologia guztietako herritarrek bat egitea, alderdikeriak alde batera utzita. Gure eskariak bete daitezten gizarte osoaren adostasuna behar baita".

Orioko pentsiodunak 2018ko martxotik 2019ko abendura bitartean astero bildu ziren pentsio duinak aldarrikatzeko. “Lehen urtean oso erantzun ona izan zuten elkarretaratze deialdiek, eta herri txikietan egiten ziren elkarretaratzeen artean Oriokoa izaten zen beti jendetsuena, 150 lagun inguru biltzen baikinaren hasieran. Pixkanaka, ordea, parte hartzea txikituz joan zen. 2019 amaierako elkarretaratzean 30 lagun bakarrik bildu ginen”. Horregatik, urteko batzar orokorra egin bitartean elkarretaratzeak bertan behera uztea erabaki zuen Zaharren Babeslekuak.

Pentsiodunek bizi duten egoeraz galdetuta, pentsiodunen arteko “elkartasuna funtsezkoa” dela uste du elkarteko bozeramaile Txomin Iribarrek. “Pentsiodun batzuek 400, 500 edo 600 euro jasotzen dituzte, eta beste batzuk, berriz, egoera hobean bizi dira. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu pentsio hobekak dituztenak okerrago daudenei elkartasuna erakutsiz kalera ateratzea”. Ildo horretan, mobilizatzen aritu diren bi urteetan “gazteak faltan bota” dituztela ere aitortu dute antolatzaileek. “Gazteak diodanean ez naiz 20 urtekoez ari, 50-60 urte bueltakoez ari naiz. Horiei laster iritsiko zaie erretiroa hartzeko unea, baina plazan bilduta ikusten gintuztenean, asko ez ziren gaiak duen garrantziaz ohartzen. Egia da pentsiodunok geure pentsioen alde mobilizatzen ari garela, baina baita etorkizunean pentsioak bermatuta egotearen alde ere. Horregatik da garrantzitsua denok batera indarra egin eta gure eskubidea diren pentsio duinak aldarrikatzea”. ■■■

AURRERIKONTU -IREKIAK 2020

Sartu www.gipuzkoa.eus/partaidetza webgunean eta aukeratu Gipuzkoaren etorkizuna eraikitzen jarraitzeko proiekturik interesgarrienak.

Proiektuen hautaketa: 2020ko urtarrilaren 21etik otsailaren 7ra.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



Asko gara jaso behar dugunak, eta gutxi

Bizitzaren azken etapan murgilduta bizi naiz, zahartzaroan, eta galdera batzuk datozkit burura: Zer espero du gizarateak pertsona helduengandik? Ze eskaintzen digu gizarateak pertsona helduoi? Eta alderantziz, helduok gizarateari? Nola baliatu daiteke gizarateak pertsona helduen jakinduriaz eta esperientziaz?

Aurreko idatzietan aipatutako zenbait galdera dira horiek, baina gaurko egunez, oraindik, ez dut inon galdera horien erantzun sistematikorik ez irakurri, ezta entzun ere. Nire ustez, horrelako gogoeta bat beharrezkoa izateaz gain, nahitaezkoa da gure gizaratean; izan ere, batezbeste Europako biztanleria helduena dugu gure lurraldean, eta hori kontuan izanda, erabilgarritasuna, zukua

atera beharko genioke gizaratearen parte den adin-tarte horri.

Nik hausnarketa bi zutabe nagusitatik abiatuko nuke: alde batetik, pertsona helduen proiektu integral bat egingo nuke, eta bestalde, helduen hezkuntza iraunkorra ahalbidetuko lukeen proiektua jarriko nuke martxan.

Proiektu integralak erantzuna eman beharko lioke pertsona helduek dituzten beharrei, baita beren garapen integralari ere. Hirugarren adinekoei

GIZARTE EREDU BERRI BATEAN SARTZEN ARI GARA: HELDUOK GIZARTEAREN %30A OSATZEN DUGU

zuzenduta egiten diren ekintza guztiak eta horiek hobetzeko proiektuen diagnostiko bat egitea abiapuntu egokia izan daiteke.

Hezkuntza iraunkorrek, berriz, norbanakoa formatzen jarraitzearekin du zerikusia, eta lagun horrek bizitzan zehar ikasi eta egin duena gizartekideei erakusteko ere balio behar du. Horrez gain, heldu bakoitzaren etorkizuneko proiektu pertsonalizatua garatzera bideratua egon beharko luke.

Ez dakit aipatzen dudana jarraitu beharreko bidea ote den, baina, bideren bat abiatu behar dela argi dut. Izan ere, gizarate eredu berri batean sartzen ari gara pixkanaka: gaur egun, helduok gizaratearen %30a osatzen dugu, eta urte gutxi barru, %50era iristeko aukerak

HAUXE BAI JENEROIA!



utxi, sortu behar dutenak

ditugula ondorioztatzen dute hainbat ikerketek. Pentsa, gaur egun bizi-esperantza 82-86 urte artean dago, eta berehala, 100 urtera gerturatuko dela diote. Ehuneko horri gehitzen badizkiogu haurrak, nerabeak eta ikasten ari direlako lanik egiten ez dutenak, gizartetik jaso behar duen jende kopurua handia da, eta aldiz, emankorrek edo produktiboak direnak, gutxi. Hau da, asko jasotzeko, eta gutxi jaso behar dutenena sortzeko. Horregatik, aipatutako gogoeta horietatik, gutxienez, helduon partaidetza aktibora iritsi beharko genuke. Beste modu batean esanda, helduek beren denbora libreare gure gizarteari eskaintzea lortuko bagenu, gainera datorkigun gizarte eredu berri horrek izango luke etorkizuna. Gainontzean, ez!

Svetllana Alexievich literaturako Nobel saria jasotako idazleak, honela zioen: “Mundu guztian bizi diren egoera nahasiengatik –dela terrorismoa, dela guda, immigrazioa, ekonomia, hondakin ekologikoak–, zoritxarrez, ideiek gero eta indar gutxiago dute. Materialtasuna gailentzen da, eta horrek min ematen dit. Behar ditugu pertsona ospetsuak gai direnak munduari buruz beste ikuspegi bat azaltzeko, beste filosofia bat, munduak beharrezko dituen beste baloreak... Adibidez, zahartzaroari buruz. (...) Gaur egun 20, 30 urte gehiago biziko gara mundu honetan, eta oraindik ez dago filosofiarik horri aurre egiteko. Bizitza berri horrentzat ideia berriak behar ditugu”. ■

NIRE HONETAN



JON GARATE

Gimnasioa. Diskrezioaren tenplua

Pasa dira Gabonak, eta bi astetan urteko kaloria guztiak jan ditugu. Orain datoz komeriak. Ni, urte berriarekin batera, kiroldegira joaten hasi naiz, udarako sasoi onean jarriko naizen esperantza faltsuarekin. Gimnasioan, ordea, bada gustatzen ez zaidan jende bat. Hona nire analisia:

BEREKOIAK. Makina edota pisu guztiak beraientzat hartzen dituztenak. Gimnasioan 20 makina badaude, hauek 6 batera hartu eta zirkuitu bat egiten dute. Bost axola besteak!

TROGLODITAK. Ariketa egitea garrantzitsua da, baina are gehiago jendeak ikustea indartsuak garela. Pisuari eutsi eta orru egiten hasten dira. Sustoren batekin bihotzeko batek emango dit egunen batean!

JAKINTSUAK. Mundu guztiari aholkuak ematen aritzen dira. Normalean, gainera, ideiarik eduki gabe. Horiek gorputza baino, mingaina lantzen dute gehiago. (Ni ere ez nago hitz egiteko moduan...).

ZERRIAK. Badaude entrenamenduaren aurretik, ondoren baino usain txarragoa dutenak. Ez da azalpen gehiago behar.


Kasu hauekin ez dut orokortu nahi, baina kexatu beharra neukan. Orain, gimnasia joateko gogoz segitzen baduzue, animo! 2020a zuen urtea da eta! ■



OINARRI **PODOLOGIA ZENTROA**



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com



O R I A
hertz klinika

Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-83 36 45

Oria Hertz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jarri du martxan.

Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre etorkizunean sor daitezkeen arazoet.



Orioko Herri Ikastola

Herri Onurako Kooperatiba

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus

PAKO IMAZ



pertsianak

PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO



SU KIA
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29



%100 etxean egina

PIZZERIA
KALETA

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA **2-16**

943-89 92 43
012137aa@hezkuntza.net



Sagasti LEIHOAK

Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arrantzale kalea, 65
20810 Orio

Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti


www.sagastileihoak.com

ZINKU ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Ander Zinkunegi
667 74 02 79



Portu
Erretetza - Jatetxea

Kazolitak, baserriko oilaskoa, parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34



“Pailazo izan nahi dut”

AIORA ZULAIKA *PIRRITX*

Noiz eta nolako izan zen zure lehendabiziko aldia?

Txikia nintzanean, Ikastola garaian, antzerkian hasi nintzen, eta gaur egun nire taldekide den Marimotots zen nire irakaslea. Porrotx eta Marimotots berarekin duela 22 urte hasi nintzen. Nafarroako herri txiki batean izan zen nire lehenengo ikuskizuna, oso jende gutxi zen artean. Oso urduri nengoen lehenengo egun hartan.

Nola sentitzen zara Pirritx pertsonaia antzeztean? Nola egiten duzu hainbeste jenderen aurrean ez lotsatzeko?

Oholtza gainera igotzen naizenean, hegalak izango banitu bezala sentitzen naiz, aske, pentsatzen dudana esateko libre. Sudur gorria jantzen dudanean, lotsa guztiak joaten zaizkit, gainontzeko guztia soberan dut sudur gorria jantzita baldin badut. Sudur gorria da nire arropa.

Nola egiten duzue hori guztia buruz ikasteko?

Praktikatuz. Ni Aiora naiz, baina Pirritx ere bai, oso barruan daramat jadanik, gaur

**"OHOLTZA GAINERA
IGOTZEN NAIZENEAN,
HEGALAK IZANGO
BANITU BEZALA
SENTITZEN NAIZ"**



egun nahi gabe ateratzen zait. Emanaldiz emanaldi praktikatuz ikasten da hobekien. Hala ere, emankizun berriak azaroan hasten ditugu urtero, eta aurreko hilabetea, urria, norberak bere papera ikasteko erabiltzen dugu.

Jakin dugu orain irakasle ikasketak burutzen zabilzala. Zer dela eta? Gustuko al duzu?

Bizitza guztian ikasten aritu beharra dago eta irakasle lana oso gustuko dut. Edozein adinetako haurrekin lan egiten gustura jardungo nintzatekeela frogatzen ari naiz ikasketa hauetan. Hala ere, une honetan, pailazo lana eta irakasle lana uztartzea ezinezkoa litzateke.

Gustura etortzen al zara Orioko Ikastolak antolatzen duen urteroko ekitaldira?

Oso gustura eta deskantsatuta. Izan ere, Gabonetan egunero emanaldiak izan eta oporraldi bat izaten dugu ondoren, eta Oriokoa oporraldi horren ondorengo lehenengo emankizuna izaten da. Indarrez eta gogo biziz etortzen gara Oriora. ■

Gazteentzat aisialdia falta

O rion, helduentzat eta txikientzat jolas parke eta aisialdirako nahikoa baliabide dauden bezala, gazteentzat ez dago ia ezer. Neguan, asteburuetan gazteok partidaren bat ikusteaz gain ez dugu egitekorik, are gutxiago eurria ari badu. Gure irtenbide bakarrak ikastola atarian dauden bankuetan esertzea, kafetegi batera joatea edo Eroskira sartzea dira, eta denbora luzez gauza bera egiten nazkatu egiten gara.

Ongi egongo litzateke Gazteleku handiago bat jartzea, edo beste bat egitea; izan ere, orain dagoen Gaztelekuak 16 urtera arteko gazteak bakarrik onartzen ditu. Asteburuetan gazteok parte hartzeko ekintzak antolatzea ere ongi egongo litzateke, eta asko eskertuko genuke. Esate baterako, herriari laguntzeko ekintzak; ondo legoke hondartza garbitzea edo antzeko jardueraren bat antolatzea. Horrekin, gazteok herrian zer esana edo zeregina edukiko genuke. Beste irtenbide bat, festetan egin dugun bezala, gazteok proposatutako proiektuak egitea izango litzateke, guk erabakitzeke zer egin nahi dugun, beti ere Udalaren onspenarekin.

Beraz, gazteon iritzia kontuan hartuta, Orion aisialdirako ekintzak antolatzea edo guretzat lekuren bat jartzea eskertuko genuke. Guk proposatutako proiekturen bat egitea, Udalak erabakitako tokiren batean. ■

Zoru pelbikoaren tabua gaindituz



TESTUA: MIREN GOZATEGI

Gure gizartean oraindik tabua da zoru pelbikoaren gaia. Oztopoak gainditu eta hortaz hitz egiten denean ere, askotan gorputzean isolatuta dagoen atal bat dela ulertzen dugu, soilik erditzeko balio duena. Irudipen hori guztiz okerra da, emakumeon zein gizonen gorputzean funtzio desberdinak baititu zoru pelbikoak. Beste edozein atalekin gertatzen den bezala, gure egunerokoan eragin dezaketen disfunczioak izan ditzake, baina horiek ez dira etsipenez, isilpean, bere horretan onartu behar. Herritarrek jakin behar dute landuta konpondu daitezkeela. Adibidez, asko dira hilekoa dutenean tanpoia edo kopa jartzean mina sentitzen duten emakumeak, baita sexu harreman mingarriak dituztenak ere. Horrek ez luke horrela izan behar.

Erditzeak utzitako ondorioez ere oso gutxi hitz egiten da. Emakume askori pixak ihes egiten die, eta ezkutuan gordetzen da lotsagatik; etxean komentatzen animatzen direnek, berriz, askotan erantzun frustragarria jasotzen dute: “Normala den. Zer nahi den ba, ama izan haiz eta”. Bestetik, erditzea oso traumatikoa izan denean, emakume askori kosta egiten zaie berriz ere sexu harremanak

izatea. Izan ere, erditu ondoren, zoru pelbikoak duen esfera sexuala ez da egoten erdigunean, beste eginkizun batzuk ikasten eta egoera berrira ohitzen ari delako emakumea. Horregatik, berriz ere sexu harremanak izateko denbora behar izaten dute zenbait emakumek, are gehiago erditze gogorra izan badute, baina ez dago horretaz lotsatu beharrik. Gainera, zenbaiti erditu ondoren nola geratu diren ikustea ere kosta egiten zaie. Egoera berria onartzea, baina, oso garrantzitsua da, une horretan hasten baita pixkanaka bere onera itzultzeko bidea.

Zorionez, gaur egun emaginek emakumeok izan ditzakegun zalantzak argitzeko ahalegin berezia egiten dute, baina gure ardura da tabuak haustea eta gure artean edo adituekin gertatzen zaigunaz hitz egitea. Egia da belaunaldi askotan zehar normalizat hartu izan direla erditu ondoren izan daitezkeen disfunczio horiek, baina gaur egun badakigu zoru pelbikoak landu daitekeela. Gihar multzo bat da, eta lantzen bada, bere onera itzul daiteke.

Emakumeen zoru pelbikoaren gaia isilpean gordetzen bada, gizonezkoen kasuan, badirudi ez dela existitu ere egiten. Normalean, gaztaroan ez die arazorik ematen, baina adinean aurrera egin ahala, disfunczioak

has daitezke. Zoru pelbikoaren funtzioa ulertzeko, puzzle bat irudikatu dezakegu. Zoru pelbikoak giharrez osatutako eremu bat da, eta gihar bakoitzak funtzio bat izan ohi du. Horregatik, puzzle horretako gihar bat kentzen edo mugitzen denean, arazoak has daitezke. Zoru pelbikoko gihar batzuk gorputzaren atal desberdinen sostengu lana egiten dute. Gihar horietakoren bat lasaitzen denean agertu daitezke arazoak; maskuria erortzen hasten denean, esaterako, pixak ihes egiteko arriskua egoten da. Beste batzuk, mugimendua erregulatzen duten giharrak izaten dira, uzkioko esfinterrean parte hartzen dutenak, adibidez. Horregatik, askok ez badakite ere, kaka egiteko arazok zoru pelbikoan ere izan dezakete abiapuntua.

Disfunczio mailaren arabera, erantzun bat edo bestea izaten dute tratamenduek, eta zoru pelbikoak lantzen hasteko pasa den denborak ere erreperazioan eragin dezake. Hau da, tratamendua hasteko asko itxaron bada, gehiago kostatzen da bere onera bueltatzea. Dena dela, eremua landuz aurrerapauso garrantzitsuak eman daitezke, eta argi izan behar dugu konpondu daitezkeela egunerokoan gogaitzen gaituzten isilpeko arazoak. ■

Euskaldun identitatea definitzen



TESTUA: AINHOA ZUMETA

Gure amona zena ez zen eskolara gehiegi joan. Gerraosteko ume askorentzat bezala, bizitza izan zen haren eskola. Bertsozale amorratua zen, eta orduak igarotzen zituen kuttun-kuttunak zituen bertso liburu zahar batzuek irakurtzen. Zenbat arratsalde pasa ote genituen bere bertsoak, abestiak, pasarteak, entzuten!

Biloba guztioi opari bera egin zigun irakurtzeko gai izan ginenean: Isaac Lopez Mendizabalen *Xabierto*.

Harrotasun handiz egiten zuen oparia, euskaltzale sutsua baitzen. Bere biloba guztiek ikasketak euskaraz egiteko aukera izanak asko poztu zuen. Eta horixe izan zen utzi zigun oparirik ederrena: euskararekiko maitasuna.

Guk, ordea, gure amonak ez bezala, hizkuntza bat baino gehiago dakizkigunez, hizkuntzen erabilerarekiko erabakiak hartu beharra dauzkagu uneoro.

Nondik hartu, ordea, erabaki hauek?

Kontzienteki, gogoeta baten ondoren, gure buruari galderak eginez eta barrutik ateratzen zaigunari erantzunez?

Ala kanpotik datozen inertziei jarraituz, korronteak eramaten gaituen moduan, besteek erabakitakoarekin bat eginez?

Nik nire buruari entzun nahi diot: Zer pentsatzen dut nik gai

honen inguruan? Zer behar ditut? Zein hizkuntzatan bizi nahi dut? Dakidan hizkuntza bakoitza zertarako erabili nahi dut? Etxekoekin, lagunekin, lanean, herrian, herria ez den lekuetan? Nire egunerokoan nola bizi nahi dut?

Bat ez da erabaki horretara bat-batean iristen...

Norberaren identitatea definitzen ari baita bat gogoeta hauekin.

Nire kasuan, zer izan dut kontuan?

Galderei erantzuten hasi bezala zerbait garbi dudala argitu dut: ni euskalduna naizela. Hori da ni definitzen nauen lehen esaldia.

Hortik, euskaldunaren beharrak asetze aldera, erreferenteak aurkitzen saiatu naiz: euskararen normalizazioan lanean ari direnak iparra zehazten ari direla argi daukat. Han eta hemen gai honen inguruan sortzen dena irakurtzen saiatzen naiz.

Hona hemen egingo dudana saiakera:

Euskal Herrian nagoen bitartean:

- Nagoen lekuan nagoela ere, nire lehen hitza beti euskaraz izango da. Aurrekoa euskarara gonbidatuz, horrela. Aurrekoak euskaraz jarraitzen badit, hor bukatu da erabakiak hartzeko lana.
- Aurrekoak euskara ez den hizkuntza batean erantzuten

badit eta elkar ulertzen bagara, orain arte ez hain eroso zitzaidan bi hizkuntzetako elkarrizketetan ohitura hartzen saiatuko naiz. Ohitu arteko kontua omen dela diote eta.

Jakitun naiz haxe dela gehien kostako zaidana, ohiturak aldatu beharko ditudalako eguneroko harreman batzuetan. Eta nire buruari behin eta berriz errepikatu beharko diodalako nireari eustek ez duela bestea ez errespetatzea esan nahi; nahi gabe, hau sakon-sakonean sartuta daukadan zerbait dela badakit.

- Aurrekoak ulertzen ez didala ikusten dudanean, biok komunikatu gaitezkeen beste hizkuntza bat hautatuko dut. Lehenengo gaztelania erabiltzen saiatuko naiz, hau baita hobekien menderatzen dudana bigarren hizkuntza. Hirugarren saiakera ingelesarekin egingo dut, honetan ere txukun moldatzen bainaiz. Eta hauek denek ez badute balio, keinuka eta dakizkidan hizkuntza bateko eta besteko hitz apurrekin moldatu beharko dut.

Hau guztia jarrera baikor batekin egin nahi dut. Nirea eustea baita nik nahi dudana, erabaki dudana, eta egingo dudana.

Eta zuk, nola jokatu pentsatu duzu? ■■■

Jauregi Jatetxea alokatzeko lehiaketa publikoa egingo du Aiako Udalak

Aiako Udalak Gozategi Enparantzaren 9. zenbakian dagoen Jauregi taberna-jatetxea alokatzeko lehiaketa publikoa antolatu du. Interesa dutenek otsailaren 3tik 21era bitartean izango dute lehiaketan izena emateko aukera.

Ustiaketa baldintzen inguruko informazio zehatza Aiako udaletxean jaso dezakete herritarrek.



Aiako Jauregi jatetxea. KARKARA

Martxoaren 1erako familia plana antolatu du Zingira Eskolak, Etxeluze gaztetxean

Herritarrak bildu eta elkarrekin familia giroan une atsegina igaro dezaten, egun osoko egitaraua prestatu du Zingira Eskolak, martxoaren 1erako. Eguerdian hasiko dute jaia txarangaz lagunduta, Herriko Plazan. Handik gaztetxera joango dira, eta bertan herri bazkaria egingo dute. Hurrengoa izango da menua: Zingira entsalada, paella,

postrea, kafea eta kopa. Gurasoak mahai bueltan berrikerian dauden bitartean, haurrek lasai jolastu dezaten jolasteko txokoa ere egokituko dute Zingirako kideek.

Arratsaldea, 16:30ean hasita, skate erakustaldia izango da, eta 18:00etatik aurrera zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Isuo eta Kezman eta

Mikel Aranzabal igoko dira Etxeluze gaztetxeko oholtza gainera.

Jaian parte hartu nahi dutenek, sarrerak salgai izango dituzte Kolon Txiki tabernan. Bazkarirako eta kontzerturako sarrera 20 euro kostako da, eta kontzertuetara bakarrik joan nahi dutenek sei euro ordaindu beharko dute. Bestetik, antolatzaileek zehaztu dute haurrek helduen menu bera izango dutela, baina hauek bost euro ordaindu beharko dituztela.

Aiarrak Euskaraldiaren batzordean parte hartzera animatu dituzte

Udazkenean egingo dute *Euskaraldia: 11 egun euskaraz* ekimenaren bigarren edizioa Euskal Herri osoan zehar eta, horretarako, herriz herri Euskaraldiko herri batzordeak sortu dituzte. Aian, esaterako, otsailaren 19an, 18:30ean bilduko dira herritarrak Kultur

Etxean. Aiako Euskaraldiko lantaldeak badaki udazkena urrun ikusten dela, baina ordurako dena prest eduki nahi dute. “Badugu nahikoa lan Aian Euskaraldia antolatzen. Aurtengo leloak dioen bezala, euskara *Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan hitz* egin dezagun”.

Hala, herriko Euskaraldiaren batzordean parte hartzera gonbidatu dituzte Aiako euskaltzale guztiak, “euskara denon ardura izateaz gain, denon bultzada behar duelako”. Seguru daude bigarren Euskaraldia ere “arrakastatsua” izango dela Aian eta, “zuen guztion laguntzarekin, beste bultzada bat emango diogula euskararen erabilerari herrian eta inguruan”.

“Egiten dugun lanaren balioa berresten du”

Duela aste batzuk Mediterraneoan arrantzatu dute 2012an Orion markatutako hegalabur bat. Bost kilo pisatzen zituen Muskuilu-Harria elkarteak askatu zuenean, eta orain 124 kilo dituela harrapatu dute.

Urteak dira, Azti Tecnaliarekin elkarlanean, harrapatutako atunak markatzen eta askatzen hasi zirela Muskuilu-Harria Aisialdiko Arrantzako Kirol Elkarteko arrantzaleak. Luis Azkue presidenteak azaldu duenez, «migratzaileak» dira atunak, eta ehunka miliako joan-etorriak egiten dituzte hainbat itsasotan barrena. «Gure kostaldean arrantzatzen diren hegalaburak alebinak dira askotan, 12 kilotik beherakoak», zehaztu du Azkuek. Arrain horiei «plastikozko espageti moduko bat» jartzen diete elkarteko kideek, atzeko hegalaren inguruan. Gero, itsasora itzuli eta haren jarraipena egiten ahalegintzen dira: «Ondo eta azkar egin behar izaten da markatze lana, arrainek sufritu ez dezaten eta marka ondo finkatuta geratu dadin».

Emaitzak ematen ditu arrantzaleek martxan jarritako prozesu luze horrek, azken albisteez berriro baieztatu dutenez. Izan ere, 2012. urtean Orion markatutako hegalabur baten berri izan du Muskuilu-Harriak duela gutxi. Juanito Dorronsorok, Antxon Sarasolak eta Txema Falquerenek Leire ontzian harrapatu eta jarri zioten marka arrainari, eta ia zazpi urte beranduago, Mediterraneoan harrapatu dute

berriz. «2012. urtean, Oriotik 8 miliara jaso zuten arrantzale oriotarrek, eta 60 zentimetroko luzeera eta 5 kiloko pisua zituen orduan. 2019. urte bukaeran Malta artxipiela gotik gertu harrapatu zuten, eta 1,97 metro eta 124 kilo zituen orduan». Beraz, zortzi urte baino gutxiagoan, hiru aldiz luzeago egin da hasiera batean gure kostan harrapatutako arrain hori, baita 25 aldiz pisutsuago ere. Mediterraneoan ugalduta ohi dira atunak, eta aurreikusi dute horretarako mugitu zela haraino.

Muskuilu-Harria elkarteko kideentzat pozgarria izan da albistea. «Egiten dugun lanaren balioa berresten du», azpimarratu du Azkuek. Azti Tecnaliako arduradunak ere zorionak eman dizkie taldeko arrantzaleei, eta haiek nabarmendu dute eurentzat «ohorea» dela ikertzaileekin elkarlanean jardutea, urtez urte.

Lan zehatza

Atunak arrantzatzea eta marka ipintzea ez da nolanhiko lana. Horregatik, Muskuilu-Harriako kideak urtero biltzen dira Aztiko ikertzaile adituekin, eta bertan azaltzen diete prozedura. «Arraina markatzen denean, arrantzaleak idatziz jaso behar du zein ontzik egin duen markaketa eta nor den patroia»,



Muskuilu-Harriako kideak. UTZITAKOIA


azaldu du Azkue presidenteak: «Gainera, markaketaren zenbakia, eguna, ordua, arrainaren luzeera eta pisua, eta markaketa non izan den (longitueda eta latitueda) ere idatzi behar dira».

Orioko elkarteko kideek haien borondatez eta «gustu handiz» egiten dute lana, baina prozedurak nolabaiteko kostu ekonomikoa ere baduela azaldu du Azkuek: «Lan horietarako dirulaguntzak oso txikiak dira». Hortaz, arrantzale bakoitzak «bere poltsikotik» ordaindu behar izaten ditu beharrezko erregai eta erabiltzen dituen tresnak.

Dena den, nabarmendu dute «ikertzaileei laguntzeko» egiten dutela lan hori, eta batez ere, «arrantza jasagarri eta arduratsua babesten» dutelako. «Espero dugu urtero egiten dugun lanak fruituak ematen jarraitzea». Izan ere, oraingoa ez da aurreneko kasua eta frogia izan. Elkarteko arrantzaleek gogorarazi dutenez, duela urte batzuk, Hondarribitik gertu atzemandako eta markatutako atun bat Amerikako Estatu Batuetako kostaldean harrapatu zuten gero, handik urte batzuetara. ■

itzala

"Ibeltzeko hotzak leizera daramatza hartzak" dio esaera zaharrak, eta hartz honek ere bide hori bera hartu duela dirudi. Aurki ezazu bere itzal ona, alboko zortzi hauen artean.



Hara!



Bai bitxia gure hizkuntza. Hiru elementu hauek izen bera dute, aizu! **Zer dira?** Ipini hemen.

Lauki bakoitzeko hizki bana idatzi behar duzu. Hemen pista batzuk, lagungarri:


- Azkena, bat baino gehiago direla adierazteko da.
- Lehen hizkia ez dugu normalki ahoskatzen.
- Bigarrena eta seigarrena bokalak dira eta berdinak dira.
- Laugarrena bokala da, baina ez da bigarren eta seigarren laukikoa bezalakoa, ezta O, edo E ere.
- Bosgarrena sudurkaria da. Ez da Ñ, baina ia-ia.
- Hirugarrena, "gu" hitzan aurkituko duzu.

ETA NIK NOLA JAKINGO DUT HORI!!



NON da Faltsua?

TTIPI-TTAPAKO irakurle batek oso ondo esan zigun behin: Elur malutak izotz-prismez osatuta daude, eta ezberdinak diren arren, ezaugarri bat eta bera dute, hexagonoak dira, sei adar dituzte beti. Aurki itzazu izotz-prisma faltsua (zazpi adar dituena) eta izotz-prisma bikoiztua.



Marraztu Urtarrila edo negua gogorarazten dizun zerbait.

Engainariak

Txatal edo puska hauetatik erdiak iruditik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Labirintoa

sekuentzia



Lagundu azerikumeari azeritegira heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tartearak dira.

Idatzi hemen esaldia.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

AGENDA

ORIO

IRTEERA

Otsailaren 1etik 2ra, Luz Ardiden eski estaziora irteera Txurrumuskik antolatuta, DBHko gaztetxoentzat.

IKASTAROA

Otsailaren 4an eta 11n, etxeko konponketen inguruko ikastaroa. Ahalduz Eskolak antolatuta. *Etxeluze gaztetxean, 17:30etik 19:30era.*

Otsailaren 15ean, kudeaketa emozionalaren inguruko ikastaroa, Ahalduz Eskolak antolatuta. *Salatxo aretoan, 9:30etatik 13:30era.*

Otsailaren 28an, noka ikastaroa, Ahalduz Eskolak antolatuta. *Kultur Etxean, 18:00etatik 19:30era.*

HITZALDIA

Otsailaren 10ean, *Jakituria eta errukia, alboan egotearen esentzia* hitzaldia Enric Benitoren eskutik, Mandalara taldeak antolatuta. *Ikastolako Areto Nagusian, 19:00etan.*

Otsailaren 26an, Euskaltzetasuna eta Feminismoa. Hizlariak: Lorea

Agirre eta Idurre Eskisabel. Ahalduz Eskolak antolatuta. *Salatxo aretoan, 19:00etan.*

FESTA ETA KIROLA

Otsailak 22an, Inauteriak eta arraunaren eguna. Txaranga kalez kalea, *12:00etan.*

Marmitako errazioak (2euro) eta txotxeko sagardoa (1,5 euro) banatuko dira. *Ibai Ondoko plazan, 13:00etan.*

Oria ibaiaren traineru-jaitsiera, *16:00etan.*

Inauteritako desfilea, *17:00etan.*

AIA



MUSIKA

Otsailaren 29an, Mikel Markezen kontzertua. *Aiako Probalekuan, 22:30ean.*



arkitektura

herrikobarra, 11 behea • ZARAUTZ • 943-13 43 58

www.xsarkitektura.com

- eraikuntza zerbitzuak
- eraikinen mantenua
- errehabilitazioak
- proiektuak
- txostenak
- ITE-ak
- obrak





Sinergia

fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea • ORIO

943-13 05 77 • 685 71 85 95

sinerגיafisioterapia.com •  

• **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, amas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekuperazioa.

• **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, amas fisioterapia, kinesoaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.

IRAGARKI SAILKATUAK

GALDUTAKOAK

Argazki kamera digitala galdu dut. Kamera poltsa gris eta zuri baten barruan zegoen. Modeloa Sony Cyber-shot DSC-RX100M3, beltza. Serie zenbakia S01-30838664-I. Oso argazki garrantzitsuak ditu. andreas.schwarz@gmx.bix. Tel.: 688 85 96 82

ALOKAIRUA

Logela alokagai. Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tel.: 652 55 15 50.

LAN BILA

Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko prest. Paperak eta gomendio orriekin. Patricia. Tel.: 674 12 32 93.

Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tel.: 638 73 05 44.

Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinako zaintza, garbiketa lanak, asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia eta erreferentziekin. Tel.: 661 13 32 95.

Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa egiteko eta klase partikularrik emateko prest. Lehen hezkuntza graduatua. Umeekin esperientzia handikoa. Tel.: 636 31 22 31.

Neska lan bila. Barnezaintzailea, garbiketa lanak eta zaintza. Esperientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin. Tel.: 632 58 23 65.

Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tel.: 676 44 13 27.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel.: 642 69 60 38.

Emakume venezuelar bat bere zerbitzuak eskaintzeko prest. Jende helduarekin ospitalean egoteko prest, egunez eta gauzez. Tel.: 688 61 04 52

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel.: 641 44 60 70.

Lan bila nabil etxe garbiketarako eta haurrak zein helduak zaintzeko. Orduka lan egiteko. Tel.: 643 66 23 89.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel.: 631 82 44 52.

Neska arduratsua lan bila dabil. Barneko zein kanpoko langile bezala adineko pertsonak zaintzeko edo

etxeko lanak egiteko prest. Karlene. Tel.: 631 87 86 59.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jarzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 602 08 98 86.

Etxeko eta zaintza lanak egiteko prest nago. Esperientzia dut eta arduratsua naiz. Lanerako gogoz nago. Wendy. Tel.: 612 46 42 43.

LAN ESKAINTZA

Langile baten bila gabilta pertsona heldu baten zaintza eta etxeko lanak egiteko. Derrigorrezkoa da gidatzeko baimena eta paperak edukitzea. Tel.: 656 73 55 19.

Urdaira sagardotegin txotx sasoiak lanerako jendea behar dugu. Urtarrilaren 11n hasi eta maiatzaren 10era izango lizitateke.

Zarauzko Iruña tabernan, urte osorako, zerbitzaria behar dugu. Interesatuok deitu 656 75 04 89 mugikor zenbakira.

ETXE BILA

Familia bat gara. Hiru gela dituen etxe baten bila gabilta. Tel.: 661 33 11 13.

Emakume arduratsua naiz eta etxea alokatu nahiko nuke. Iraupen luzeko alokairu bila nabil. Tel.: 676 44 13 27 edo 676 44 13 27.

Neska oriotar bat etxea alokatu nahian. Tel.: 677 28 95 21.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguru ordaindua du. 3.500 euro. Tel.: 657 77 45 11.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel.: 623 17 95 37.

Garaje itxi bat erosi nahiko nuke kotxe bat sartzeko tokiarekin. Herri erdialdean edo goiko kalean. Tel.: 666 18 41 69.

Portugeseko ahozko mintza praktika hartu nahiko nuke ingelesaren edo euskararen truke. Tel.: 691 34 48 56.

ITSASO

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	09:13 eta 21:42	02:54 eta 15:27	☉
2	10:03 eta 22:40	03:50 eta 16:29	☉
3	11:10 eta 23:56	05:02 eta 17:41	☉
4	12:34	06:20 eta 18:51	☉
5	01:14 eta 13:50	07:28 eta 19:51	☉
6	02:18 eta 14:48	08:24 eta 20:43	☉
7	03:09 eta 15:37	09:14 eta 21:30	☉
8	03:54 eta 16:21	10:00 eta 22:15	☉
9	04:37 eta 17:03	10:44 eta 22:58	☉
10	05:20 eta 17:45	11:28 eta 23:42	☉
11	06:02 eta 18:28	12:11	☉
12	06:45 eta 19:12	00:25 eta 12:56	☉
13	07:30 eta 19:57	01:10 eta 13:42	☉
14	08:18 eta 20:47	01:58 eta 14:31	☉
15	09:10 eta 21:43	02:51 eta 15:28	☉
16	10:13 eta 22:51	03:56 eta 16:36	☉
17	11:30	04:50 eta 17:57	☉
18	00:10 eta 12:59	06:15 eta 18:58	☉
19	01:27 eta 14:10	06:35 eta 20:04	☉
20	02:28 eta 15:03	08:30 eta 20:55	☉
21	03:15 eta 15:45	09:23 eta 21:37	☉
22	03:54 eta 16:19	10:02 eta 22:13	☉
23	04:29 eta 16:50	10:36 eta 22:47	☉
24	05:01 eta 17:19	11:09 eta 23:20	☉
25	05:31 eta 17:47	11:39 eta 23:51	☉
26	06:01 eta 18:15	12:09	☉
27	06:31 eta 18:44	00:21 eta 12:39	☉
28	07:02 eta 19:14	00:52 eta 13:10	☉
29	07:36 eta 19:49	01:24 eta 13:43	☉

FARMAZIAK-OTSAILA

ORIO

7, 24, 25, 26, 27 eta 28. LASA: Herriko plaza / 943-83 09 36

ZARAUTZ

4 eta 10.	ETXEERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
5.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
11, 21 eta 29.	GALLO: Zigorlita kalea, 17 / 943-13 40 19
6, 22 eta 23.	GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
8, 9, 14 eta 17.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarbo Enea / 943-13 29 70
3, 14 eta 16.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
13 eta 20.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
12 eta 18.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
1, 2 eta 19.	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

Puntua jarrita

Txomin Eizagirre
(Doinua: Lizargateko bertsoak)

1

**Asko aldatu zaigu
San martin bailara**
ta aldaketa horren
lekuko gu gara
lehen bazen jendea
ta bazen algara
orain goiko gehienak
behera jaitsi gara

2

Lehen bazen nahiko haur
heldu eta gazte
makina elkar-truke
franko borondate
tori dozena arrautza
bi letxuguen truke
gaur egun haietara
itzuli nahi nuke

3

Auzoko festek berriz
beheraka nabarmen
lehen lagun mordoa
zen oilasko biltzen
orain nahiz ta bilatu
jendea han ta hemen
aurten ezin dutela
ea beste baten!

4

Errepideaz ere
zeresanik bada
lehen oinezko zenak
orain auto bana
eta hurbilduz gero
igandetan, hara!
topatuko duzue
kriston auto-ilara!

5

Baina aipatu nahi dut
San martinen alde
baditu itsasoa,
belardi, artalde
Orioko bistarik
onenak han daude
sinesten ez baduzu
auzotarrei galde!


Hurrengo bertsolaria:

Juan Antonio Erkizia.

Puntua:

Azken urte hauetan zenbat
gora behera.

Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Txomin Eizagirreri jarri dio puntua Maria Azkuek: "Asko aldatu zaigu San martin bailara". Hurrengoari ere jarri dio puntua.





bulego ordutegia:

08:30-13:30 / 14:30-18:30

Tel.: 943 834 704 / 943 894 360 e-posta: orio@ikastola.eus

www.oriokoikastola.eus